





URTEKARIA DEBAGOIENA 2015



Zorionak eta urte berri on!



LASA
jatetxea

Ozaeta jauregia - BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekalde 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea

943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

LAURA ALUTIZ

Arrasate / Otalora Lizentziaduna, 18 solairu artea
687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NAGORE ARANBURU

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18, solairu artea, esk
685 72 01 42

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UNAI SERRANO

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

OÑATI

SHERPA ARRISKU KAPITAL FUNTSAK HARTU ZUEN CEGASA

Cegasa taldeko Oñatiko 131 langileak Sherpa arrisku kapital funtsarendako hasi ziren lanean urtarrilaren 28an. Salerosketa operazioa bi milioi eta erdi euroren truke egitea adostu zen, hasiera batean. Langileek balorazio gazi-gozoa egin zuten.

ESKORIATZA

TOPONIMIAREN GAINEKO LANA AURKEZTU ZIETEN HERRITARREI

Azken hiru urteetan toponimiaren gainean egindako lana aurkeztu zuten urtarrilaren 16an. IkerMap enpresak izan zuen ikerketa lanaren ardura, eta jaso zituen, besteak beste, herriko baserrien, erreken, tontorren eta kaleko hainbat etxeren izenak.

BERGARA


XABIER ARREGI 'TXAPI' PRESOA ASKE UTZI ZUTEN

Urtarrilaren 7an atera zen Almeriako kartzelatik Xabier Arregi osintxuarra. 18/98 sumarioan auzipetuta, zazpi urte pasa egin ostean utzi zuten libre. Herrikideek harrera beroa egin zioten Bergaran, Artatse elkartearen atarian.

ARETXABAETA

KURTZEBARRI ESKOLAKO GELA BERRIETAN HASI ZIREN LANEAN

Kurtzebarri eskolaren leku arazoa konpontzeko, handitu egin zuten patio aldera. Eskolari itsatsita hiru solairuko beste eraikin bat egin zuten eta sei ikasgela berri jarri zituzten. Hain zuzen, urtarrilaren 27an sartu ziren ikasleak gela berrietara.



BERGARA

ENEKO LIZARRALDE TXIRRINDULARIA

Eneko Lizarraldek (Bergara, 1993) profesional mailan debutatu zuen Murias taldearekin urtarrilaren 29an, Mallorcako Itzulian. Jon Odriozolaren taldean gazteena zen.



ARAMAIO

Herriko Urrezko Zeledoiak omendu zituzten ◀

Aramaioi eman dituen hiru Urrezko Zeledoiak protagonista izan ziren urtarrilaren 11n: Rafael Mendiakdua, Sabin Salaberri eta Josemari Velez de Mendizabal. Udalak eta Alaiak erretiratu elkarrekin antolatuta (argazkian), herriko historia, antzerki eta musikarekin gozatu zuten herritarrek.

Mendiakduak meza esan zuen, Velez de Mendizabalek parte hartu zuen han eta Salaberrik organoa jo zuen herriko Bizente Goi-koetxea eta Arabako abesbatzekin.



ARRASATE

'Puntua' astekaria aurkeztu zuen GOIENAK ◀

Debagoieneko euskaltzaleei, eragile sozialei, udal ordezkariari, kirolariari, Goienaren komunitatea osatzen duten kolaboratzaileei eta bezeroei (argazkian batzuk) atek zabalduta aurkeztu zuen Goiena Komunikazio Zerbitzuak urtarrilaren 15ean *Puntua* astekaria.

Goiena Klubeko bazkideak etxean hasi ziren jasotzen, GOIENA paperarekin batera, askotariko gaiak jasotzen dituen 48 orriko aldizkaria. Eta harrera bikaina egin zioten bazkideek.

ARRASATE

Josu Uribetxeberria Bolinaga hil egin zen ▶

Urtarrilaren 16an, etxean, hil zen Josu Uribetxeberria Bolinaga *Eperra*, 60 urte zituela.

Hurrengo egunean egin zuten haren aldeko hileta zibila Aldaiko kanposantu zaharrean eta ehunka arrasatearrek agurtu zuten; txalaparta eta txistu doinuekin, bertotan eginda eta lore eskaintzekin. Aldarrikapenerako tartea ere izan zen, eta "Josuri egindakoa" salatu zuten: "Legeak dioen bezala aske egon balitz ez zainketak izan balitu Josuk bizirik jarrai zezakeen".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31, 20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500: Otalora Lizentziaduna 31 |
132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 |
Faxa: 943 25 05 00 | arrasate@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale.
Difusioa: 18.507 ale.

DEBAGOIENA 2015, URTEKARIA

Zuzendaria Eneko Azkarate.
Erredaktore burua Urbane Madera
Erredaktorea Aitziber Aranburuzabala, Maider Arregi,
Imanol Beloki, Jokin Bereziartua, Mireia Bikuña, Oihana
Elortza, Arantza Ezkibel, Imanol Gallego, Julien Iriondo,
Leire Kortabarria, Ander Larrañaga, Txomin Madina,
Amaia Txintxurreta, Xabi Urtzelai, Larraitx Zeberio, Mirari
Altube, Jagoba Domingo, Monika Belastegi, Maite
Txintxurreta, Jon Bereziartua, Larraitx Zeberio, Josu Bilbao.

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Oxel
Arrieta.
Argazkiak (sinadurarik ez dutenak) Erredakzioa,
Aramaioiko udala, Argazki Press, Argazki Artxiboa,
Imanol Soriano, Natxo Santos, Tonibio Jauregi,
Arizmendiarieta 100.com, Ariz Gordo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia
Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Joki
Uribetxeberria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen argitalpen honetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

HONAKO URTEKARI HONEN EDIZIOA ABENDUAREN 18AN ITXI DU GOIENAK

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Arizuelako
Udala



Aramaioiko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz
lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

OÑATI**OÑATIRAKO BIDEA MOZTU EGIN ZUEN LUR-JAUSI BATEK**

Euri-jasen ondorioz mendia behera etorri zen Elorregi auzotik Zubillagara bidean, eta errepidea guztiz estali zuen urtarrilaren 30ean. Beste errepide batzuetan ere izan ziren arazoak; Arrasate eta Aretxabaleta artean, esaterako, ibaiak gainezka egin zuen.

ANTZUOLA**AUZO-KONPOSTA EGITEN HASI ZIREN ANTZUOLARRAK**

Urtarrilean hasi ziren auzo-konposta egiten Antzuolan. Sei gune ezarri zituzten herritarrekin adostuta: Antigua, Sagasti, Lizarraga, Ibarrodo, San Joxepe eta Errekalde. Eta orduan izena emandako 40 familiek ikastaroa jaso zuten.

BERGARA**ERAIKIN BERRIA INAUGURATU ZUTEN SAN MARTIN ESCOLAN**

Hezkuntza sailburu Cristina Uriarte eta Maren Belastegi zinegotzia bertan zirela inauguratu zuten urtarrilaren 24an San Martin eskolako haur hezkuntzako eraikin berria. 200 ikasletik gora hasiko ziren eskolak hartzen eraikin horretan.

**OÑATI****Oñatiko Herri Curriculumuma sortzeko lehen saioa ▲**

Oñatiko kultura ondarea herriko haurrei transmititzeko egitasmoa jarri zuen abian Hezkuntza Mahaia urtarrilaren 21ean. Gipuzkoa-ko hiru herritako ordezkariak –Arrasate, Orio eta Azpeitia– etorri ziren euren esperientzien berri ematera (argazkian).

BERGARA**Bistara jarri zuten Simon Arrietaren arrastoa ▲**

Simon Arrietaren mendeurrenari hasiera emateko, Beart elkarteko kideek erakusketa kolektiboa ireki zuten urtarrilaren 16an. Arrietak herrian itzal luzea izan zuela erakusten zuten herriko artisten 40 lan jarri zituzten Aroztegin, gehienak olioak eta akuarelak.

ESKORIATZA**Zaldibar antzokiak atek ireki zituen herritarrendako ►**

Udal ordezkarien (argazkian Beñat Herce alkatea), herriko eragile askoren eta Diputazioko ordezkarien artean inauguratu zuten urtarrilaren 23an Zaldibar antzokia. Bisita gidatuak egin zituzten herritarrendako gero, Santa Ana auzoko eraikinean.



AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

FINANTZAKETA:



Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x

Logelak

Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

sukia GEDI

BERGARA

AISIALDIGUNEA INAUGURATU ZUTEN OXIRONDON

Azoka Bergaratzeko egitasmoaren baitan, 0-4 urte arteko umeendako aisialdigunea sortu zuten Oxirondoko eraikinean, eta otsailaren 25ean inauguratu zuten. Erabiltzaileen gustuko ekintzak antolatzea zuten hurrengo helburu.

OÑATI

MARIA IRIZAR KALEARI, IZEN BERRIA ZUEN PLAKA

Apaolaza Alarguna kaleari izena aldatu eta Maria Irizar jartzea onartu zuen udalbatzak azaroan; bada, otsail hasieran, plaka ere aldatu zioten kaleari. Izan ere, senarraren abizena agertzen zen. Orduz geroztik, beraz, *Maria Irizar* irakurtzen da plakan ere.

LEINTZ GATZAGA

ESKOLA TXIKIAREN PROIEKTUARI EZEZKOA JAURLARITZAK

Eusko Jaurlaritzak ez zuen onartu herrirako eskola txikiaren proiektua; hau da, 2-6 urte artekoendako eskaintza akademikoa herrian ipintzea. Hori jakinda, Udalaren hurrengo asmoa izan zen zaintza eta jangela zerbitzuak ipintzea.



BERGARA

Candyren lantegia errentan jartzea adostu zuten

Candy Hoover enpresako zuzendaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta sindikatuek akordioa egin zuten otsailaren 20an; hain zuzen, lantegiaren instalazioak 150.000 eurotan errentan jartzeko ados ipini ziren, beste proiektu industrial bati aukera emateko, balizko lehiakideak aukeretatik kanpo utzita, betiere.



DEBAGOIENA

Neguko elurte handiena, otsail hasieran ▶▼

Hilaren 3an hasita, neguko elurte handiena egin zuen. Errepi-deetan hainbat gorabehera izan zen, baina ez hor bakarrik: semaforoak matxuratu egin ziren, zenbait eskola itxita egon ziren, telebista ikusi ezinda, argindarra joan-etorrian... Datu bat ematearren, Arantzazun 50 bat zentimetro elur pilatu zen otsailaren 5ean. *Goiena.eus*-en eta sare sozialetan oso aktibo izan ziren debagoiendarrak, bideoak eta argazkiak ikusten eta konpartitzen.



ARRASATE

San Juan Bataiatzailearen irudia konpondu zuten ▲

Abuztu amaieran apurtu egin zuten San Juan Bataiatzailearen irudia, eta otsail hasieran konponduta eta zaharberrituta aurkeztu zuten Horazio Argarate parrokoak eta Mari Karmen Martin zaharberritzaile arrasatearrak. Irudiaren jatorrizko argazki batzuei esker erreproduzitu zituzten galdutako edo hondatutako zatiak: bildotsa, hankak... eta polikromia. Hilabeteko lana izan zen eta 1.500 euro kostatu zen.

2016a OPAROTASUNEZ BETETA IZATEA OPA DIZUGU. ZURE KONFIANTZA IZATEN SEGITUKO DUGUN ESPERANTZAREKIN ETA GURE ZERBITZUAK ESKEINTZEN SEGITUKO DUGULAKOAN:

EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-04

943 791 844
info@eguzkigraf.com

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

liburuxkak
jai egitaruak
pegatinak
kartelak
tarjetak
etiketak

Gabilondo - Arzegi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

EUSKO LABEL

EUSKAL OKELA

Gabon zoriontsuak eta Urte berri on guztioi!

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA

BERGARA**100 TONA HARKAITZ JAUSI ZEN TTT ENPRESAREN GAINERA**

Otsailaren 25ean, euriteak eraginda, 100 tona harkaitz jausi ziren TTT enpresaren biltegiara, eta kalte materialak egon ziren, batik bat, biltegian bezeroei entregatzeko zeuzkaten gauzetan; zorionez, zauriturik ez zen egon.

**DEBAGOIENA****BAILARAKO UEMA-KO LAU UDAL, EPAITEGIETARA JOATEKO ZAIN**

Uemako hainbat udal epaitegieta joateko dataren zain gelditu ziren, Carlos Urkixok helegiteak ipini eta gero. Oñati, Elgeta, Antzuola eta Bergarako udalak zeuden tartean. Aktak euskara hutsean bidaltzeagatik ipini zuen Urkixok helegitea.

4,90

METRO

Jonathan Perez pertika jauzilari arrasatearrak 4,90 metroko jauzia eginda irabazi zuen Euskadiko Txapelketa otsailaren 7an Anoetako belodromoan.

**ARRASATE****Gaztainondoaren ordeztu, haritza Arbolapetan ▶**

Otsailaren 21ean landatu zuten arrasatearrek aukeratutako hiruzpalau metroko haritza Arbolapetan. Urriaren 27an moztu zuten 114 urte zituen gaztainondoa, *antracnosi* izeneko ondoak jota zegoelako. 2007an hasi zen egotzaren aztarnak erakusten, adarrak jausten zitzaizkielako. Haren ordeztu, *Quercus robur* (haritz arrunta) ale bat ipini zuten. Aurrekoa egon zen lekuan 4,20 x 1,20 metroko zuloa egin zuten zuhaitz berria sartzeko.

**OÑATI****Aratusteetan berrituta irten ziren txorimaloak ◀**

Abendutik otsail hasierara arte Hondarribiko Garate Anaian tailerrean egon ondoren, Aratuste-martitzenean atera zituzten Oñatz dantza taldekoek Oñatiko erraldoiak eta txorimaloak kalera, konponduta eta berrituta. Aurretik, azkeneko aldiz 1992an zeuden eraberrituta, eta garbitu, margotu eta kolpeak konpontzeko beharra zuten. Oraingoan, "urte batzuetarako" konponduta zeudela esan zuten Oñatz taldeko ordezkariak.

BERGARA**Emakumeendako lekua Lanbide Heziketan ▲**

Lanbide Heziketan emakumeak baduela lekua eta gaitasuna; mezu hori plazaratu nahi izan zuten Miguel Altuna institutuan otsailaren 24an hasi ziren jardunaldietan. Lanbide Heziketarako sailburuorde Jorge Arevalok, esaterako, esan zuen industria sektoreko lanpostuen %76rako Lanbide Heziketa titulua behar delako 2020an, eta animatu egin zituen neskak elektrizitatea edo fabrikazio mekanikoa moduko arloetara jotzera.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA

San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA

aroztegia@ugartearoztegia.com



GABON JAI ZORIONTSUAK!

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorak



Jai Zoriontsuak!

%21

MERKEAGO

Otsailaren 1ean, Aretxabaletako Udalak bere gain hartu zuen Ibarra kiroldegia kudeatzea. Tarifa %21 merkatu zen, Udalak horrela erabakita.

ARETXABALETA EUROPAKO GAZTE PARLAMENTUAREN SAIOA

Europako Gazte Parlamentuaren Debagoieneko saioa egin zuten MUn. Gai soziopolitiko bat abiapuntu hartuta eta hura ondo prestatuta, ikasleak parlamentari lanetan jarri ziren. Gai hori epaimahaiaren eta beste taldeen aurrean defendatu behar zuten.


OÑATI ALOÑA MENDI, EUSKADIKO KROS TXAPELDUN, LEHENENGOZ

Euskadiko kros txapelketa irabazi zuen Aloña Mendik, lehenengo aldiz. Javi Gomezek entrenatuta, Sergio Gartzia, Yera Varela, Mikel Ugarte, Alberto Revuelta, Imanol Cruz, Tasio Gomez, Unai Hernandez, Aritz Ruiz eta Juan Seño lehiatu ziren.



ARRASATE
**JOXE
ARRIARAN**
PILOTARI OHIA

Otsailaren 1ean hil zen Joxe Arriaran, 88 urte zituela. 1955ean eta 1956an buruz buruko txapeldun izan zen eta 1961ean, binakakoa, anaiarekin.



ESKORIATZA
**ITOITZ
ARMENDARITZ**
'MUSHERRA'

Hilaren 22an, munduko lera lasterketako txapelketa irabazi zuen Itoitz Armendaritzek Alemanian. Sei txakurreko modalitatean irabazi zuen.

ANTZUOLA

Auzolanean txukundu zuten trenbide zaharra ▶▶

Hilaren 17ko osoko bilkuran, herritarrek auzolanean txukundutako trenbide zaharrari bukaera emateko hitzarmena onartu zuten. Hala, trenbidearen plataforma zaharretik doan bidegorri zatiko tunelen barruan instalazio elektrikoa eta argiak jartzeko obrak Udalak egin eta finantzatu zituela onartu zen. Osoko bilkuran, aho batez eman zioten Bilduk eta EAJk Antzuolan Herri Lagunkoien proiektuari atxikimendua.



ANTZUOLA

Deskargako lanak bertan behera utzi zituen Aldundiak

Beasain-Durango korridoreko Deskarga-Antzuola zatiko lanak eta horien kontratua eten egingo zituela esan zuen EH Bilduren Diputazioak otsail erdialdean, "geologia arazoak" zirela eta: paretak jausi egiten ziren hasieratik. Lanen proiektua egokia ez zela esan zuen Azpiegitura Sailak. EAJk gogor kritikatu zuen erabaki hori eta EH Bilduren "gestio eskasa" azpimarratu zuen.

OÑATI

'Loreak' sari gabe bueltatu zen Goyetatik ▲

Aitor Arregi oñatiarraren Moriarti ekoiztetxearen *Loreak* filma esku hutsik bueltatu zen Goya sarietatik otsailaren 8an. Ibilbide oparoaren bukaera izan zen; urtarrilean, Palm Springs-eko zinemaldian film latino onenaren saria lortu zuen, eta Sant Jordi sariketan, Espainiako film onenarena; Itziar Aizpuru aktoreak Feroz saria irabazi zuen, gainera.

Bergara ●
metagra
México ●
Group

**Gabon zorientsuak eta
urte berri on!**

BERGARA**ERRETIRATUENDAKO LOKALA INAUGURATU ZUTEN**

Hilaren 15ean inauguratu zuten herriko erretiratuendako Martokoa auzoko eskola zaharrean egokitutako lokala. Astelehenetik domekara egongo zen zabalik, Udalak kudeatuta. Bi gune bereizi eta 38 lagunendako mahaia zituen.

ANTZUOLA**GI-632KO URRETXU-ANTZUOLA ZATIA ZABALIK**

Hilaren 25ean zabaldu zuten GI-632 errepideko Urretxu-Antzuola zatia, Beasain-Bergara arteko ardatza osatzeko zati garrantzitsua. Hala, aurrerantzean ibilgailuek ez zuten Deskarga gainetik pasatu beharrik izango.

ARETXABAETA**EMAKUMEEN EGUNEAN, LAU BANKUKO PLAZA**

Emakumeen Egunaren harira, *Lau bankuko plaza, emakumion baza* inauguratu zuten hilaren 7an, emakumeen borroka aitortzeko. Santa Kurtz kalean dagoen plazatxoarekin batuz margotutako lau bankuk eta plaka batek osatzen zuten.

1.035

KILO

Antzuolako Udaleko teknikari Markel Azkargortaren esanetan, hilean 1.035 kilo konpost batzen zuten herrian auzo-konpostaren bidez. 54 familia zebiltzan.

217

EMAKUME

Debagoieneko 217 emakumek hartu zuten parte Donostiako 26. Lilaioa lasterketan. Haietatik 213k arineketa egin zuten eta lauk, patinetan.

**OÑATI****Alberto Plazaola berriz atxilotzera joan ziren ▼**

Alberto Plazaola ETako kide ohia aske utzi zuten 2014ko abenduan, baina, Auzitegi Nazionalak hala aginduta, berriz atxilotzera joan ziren martxoaren 11n, eta ez zuten etxean topatu. Irailaren 7an atxilotu zuten Ziburun.

OÑATI**Gazte lokaletarako arauak, denon artean ▼**

Gazte lokalen gaineko azterketa parte-hartzailearen batzarren fasea martxoaren 11n bukatu zen. Inplikatu guztiek –gazteak, lokalen jabeak, gurasoak eta bizilagunak– parte hartu zuten. Helburua zen elkarbizitza eta errespetua bermatzeko irizpide batzuk finkatzea, eta hori dena araubide baten islatzea. Kezka nagusia segurtasuna zen, eta bigarren, zaraten arazoa; azken hori konpontzeko hainbat proposamen egin ziren.

**ARRASATE****Polemikarekin hasi ziren Arrasate pasealekuko lanak ▲**

Martxoaren lehen itxi egin zuen Udalak Arrasate pasealekua, hura kale bihurtzeko lanak hasi zitezkeen. Sei hilabeteko epearekin eta 1.135.000 euroko aurrekontuarekin hasi ziren, eta, amaitzerakoan, oinezkoek eta bizikletek izango zuten lehentasuna. Proiektuak aldeko eta kontrako iritzia piztu zituen. Aldekoek zioten oinezkoendako leku gehiago behar zela herrian; kontrakoek, komertzioari kalte egingo ziola, bizilagunendako eragozpen handia zela, dirutza zela...



San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista

Urte berri on!

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:**BALORAZIO PACKA:**

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

Urte Berri On!

ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behe / 20560 / OÑATI

Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20

Faxa: 943 78 31 36



**ARAMAIO
MANEX
AGIRRE**
BERTSOLARIA

Arabako bertso txapela jantzi zuen Manex Agirrek martxoaren 21ean. Iñaki Viñasprekin kantatu zuen finaleko buruz burukoan.



**ESKORIATZA
ISABEL
GURIDI**
IRAKASLEA

Martxoaren 18an hil zen Isabel Guridi, 73 urterekin. Herriko ondarea berreskuratzeko eta transmititzeko lan handia egin zuen eta museo eskola sortu zuen.



**ANTZUOLA
GERVASIO
LEGORBURU**
TXISTULARIA

Martxoaren 5ean hil zen Gervasio Legorburu. Makina bat lan egin zuen txistuaren eta dantzaren alde Antzuolan. 2003an Herriko Bandera eman zioten.



BERGARA

Candyraiko proiektu bat onartu zuten langileek ▲

Candyko langile ohiek onartu egin zuten Candy berrindustrializatzeko Luxemburgeko Optimize enpresak aurkeztu zuen proposamena: eskuterrak egitea, hain zuzen ere. Martxoaren 26an egindako batzarrean gehiengoz babestu zuten langileek proiektu hura: alde bozkatu zuten 74 langileetatik 59k, kontra bostek, eta hamar langilek ez zuten bozkatu. Dena dela, apirilean atzera bota zuen proiektua Foru Aldundiak, "nahikoa heldutasun" ez zuelako.



BERGARA

Arrakastaz estreinatu zen 'Mozkorra parregarri' ▲▶

Arrakastaz estreinatu zuen herri-talde batek hilaren 14an *Mozkorra parregarri* opera. Lehenengo euskal operatza hartzen da orain 250 urte Xabier Maria Munibek, Peñafloidako kondeak, idatzi zuen hura, eta euskara hutsean estreinatu zen Bergarako udaletxean. Estreinaldikoaz gain, beste hiru emanaldi egin zituzten, jendeak hala eskatuta. Agintari politikoez gain, Peñafloidako 16. kondea Madrildik etorri zen estreinaldirako.



ESKORIATZA

AP-1 itxita egon zen, luiziak egon zirelako ▲

Martxoaren 3an, luizia izan zen AP-1 autobidean, Gasteizera noranzkoan, Eskoriatzako trantuan. Gerora, bigarren luizi bat ere izan zen. Ondorioz, mendi maldak behera egin zuen eta tarte hori itxi egin behar izan zuen Foru Aldundiak. Autobidea zeharo itxita egon zen denbora baten. Martxoaren 26an ireki zuten, baina hasieran norabide bakoitzerako bide bakarra. Zirkulazioa asko handitu zen bai Arlabanen, bai Gatzagan.





☎ 943 71 48 45

Zorionak eta urte berri on!
Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.

Zorionak eta urte berri on!



OÑATI



ARRASATE



ARETXABALETA



ELGETA

BERGARA
MUSIKA HAMABOSTALDIKO
KARTELA, LAZKANORENA

Jesus Mari Lazkano artista bergararrak egin zuen Donostiako Musika Hamabostaldirako kartela, arduradunen enkarguz. Hamabostaldiko kartelak beti artista ezagunek egin izan dituzte. Lazkanorendako, "ohorea eta ardura" izan zen enkargua.

ARAMAIO
BURUJABETASUNAREN ALDEKO
JARDUNALDIA EGIN ZUTEN

Herri burujabea posible dela erakusteko, jardunaldia egin zuten martxoaren 7an. Biomasa, bertako aisia eta turismoa, elikadura, baso kudeaketa eta beste arlo batzuk landu zituzten. Udalak balorazio positiboa egin zuen.

OÑATI
TXANTXIKU TXURIURDINAK
ZALE-TALDEAREN AURKEZPENA

Txantxiku Txuriurdinak izeneko zale-talde berriak –Iñigo Martinezen lagunartek– bere burua aurkeztu zuen martxoaren 24an. Iñigo Martinez, David Zurututza, Leire Fernandez eta Idoia Agirre jokalaria etorri ziren aurkezpenera.



ARAMAIO

DEBAGOIENA
Martxoaren 23an ibili zen
Korrika 19 bailaratik ◀▶▲

Korrika 19k Debagoien ia osoa zeharkatu zuen martxoaren 23an. Elur bustia zela sartu zen Debagoienean, Udanatik, 05:55 aldera. Eguraldiak, beraz, ez zuen lagundu, baina, hala ere, norbanako, elkarte, ikastetxe, enpresa, erakunde... mordoak hartu zuen parte Korrikan eta Korrika Txikian. Debagoieneko herri guztiak zeharkatu zituen Korrikak Eskoriatza izan ezik, eta eskoriatzarrek Postaka antolatu zuten haren orde.



BERGARA

ALDEDI

Urte berri on!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

ANTZUOLA**ESKOLAKO ATERPEAREN ARAUAK ALDATZEA ERABAKI ZUTEN**

Eskolako aterpearen arautegia aldatzea erabaki zuen Udalak, herritarren eskaerei men eginez. Hain zuzen, adin tartea zabalduko zuten. Herriko 25 eraikin, espazio publiko eta aisigune aztertu zituen Udalak, prozesu parte-hartzaile baten.

ARRASATE**BARANDIARAN ERREMENTARIA, ERAKUSKETAN**

Dinbi, danba, mailukaren hotsa izeneko erakusketa ireki zuten Harresi aretoan hilaren 24an. Bertan, Arrasateko azken errementari Bixente Barandiaranen bilduma erakusten zen. Barandiaranek Udalari eman zion bere tresneria guztia.

ELGETA**GASTESIREN ARTXIBOA DIGITALIZATZEA, AURRERA**

Udalbatzak aho batez onartu zuen hilaren 28an Joaquin Gastesiren artxiboa digitalizatzeko prozesua martxan jartzea. Udalak uste zuen 4.500 bat argazki izango dituela Gastesiren artxiboak. *Elgeta.org* atarian ipini nahi zituen Udalak.

**LEINTZ GATZAGA****Herriaren mugimenduak datuekin jantzi zituzten ▶**

Leintz Gatzagaren mugimenduak 1980an hasi zen kontrolatzen Foru Aldundia, baina 2015ean jantzi dituzte datuok mugimenduok, Aldundiak eta Euroestudios enpresak egindako jarraipenarekin. Ondorio orokorra izan zen Gatzagaren ezkeraldea –Arlaban ingurua– gehiago mugitzen dela eskumakoa –erdialdea– baino. Udalaren esanetan, informazioak balio izango zuen pitzadurak aurreikusteko eta hirigintza arloko erabakiak hartzeko.

ARRASATE**1. Arrasate-Udalatz lasterketa, borobila ▲**

Arrasate-Udalatz lasterketaren lehenengo edizioa borobila izan zen. Apirilaren 19an jokatu zen. Eako Imanol Goñi (1:49:17) eta Elgetako Oihana Kortazar (2:13:50) gailendu ziren helmugan. Arrasatekoen artean, Aritz Kortabariarendako eta Ane Zabalarendako izan ziren herriko ordezkari onenen sariak. Joseba Iglesias saria ere eman zuten; Udala eta Udalatz artean hartutako denbora onena Iñigo Larizena izan zen.

**ARRASATE****Trajez jantzita ospatu zuten ARTkoek txapela ◀**

Apirilaren 18an ospatu zuten ARTko mutilek errugbi ligako txapeldun zirela; matematikoki hala gertatu zen, liga amaitzeko bi jardunaldi falta zirela. Ohitura zahar bat berreskuratu eta trajez jantzita joan ziren Gasteizera, azkenurreko partidua jokatuz. Hurrengo astean, ospakizun gehiago egin zituzten: hala, Kanpanzar Harrobiak enpresakoei kamioia eskatu zieten eta 1995-1996 denboraldian egindako argazkia errepikatu zuten.



Julian Uribeetxeberria Olalde
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54


Zorionak eta
Urte berri on!



ileak
mari karmen ile apaindegia

**Gabon
zoriontsuak izan!**

san lorentzo 9 a behea
tel.: 943 72 60 46
OÑATI



ANTZUOLA**OLAMENDIKO SENAR-EMAZTEEI
ESKER ONEKO PLAKA**

Jose Mari Ugalde eta Josefa Okarantza Olamendiko senar-emazteek herriari egindako ekarpena (herentzian Udala mesedetu zuten) eskertu zuen Udalak, plaka batekin. Gizarte zerbitzuetan gastatzeko dirua, besteak beste, utzi zuten.

ARETXABALETA**LOREONTZI HANDI ETA
KOLORETSUAK OTALORAN**

Otalora kalea 20 loreontzi handi eta koloretsuz jantzi zuten apiril bukaeran. Loreontzietako zuhaitz eta zuhaixkak ere koloretakoak ziren. Herritar batzuei alaiak iruditu zitzaizkien eta beste batzuei ez zitzaizkien batere gustatu.

OÑATI**HERRI ARTEKO PILOTA
TXAPELKETAN, BERRIZ**

Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketan sartu zen Oñati, 26 urte jokatu gabe egon ondoren. Urte hartan finalera iritsi zen, eta txapelkunorde izan zen. Horrenbestez, Aloña Mendiko pilota saila azken urteetako egoerarik onenean zegoen.



ARRASATE
JOSE MARIA
ARIZMENDIARRIETA
ABADEA

Kooperatibismoaren sortzailea, Jose Maria Arizmendiarieta, jaiotza 100 urte bete ziren apirilaren 22an. Omenaldia egin zioten Markinan eta Arrasaten.



ARRASATE
JOXE MANUEL
ARRIOLA
KALEZAINA

Apirilaren 28an hil zen Joxe Manuel Arriola, Arrasateko aguazil ezaguna. 1939tik 1981era izan zen kalezaina; hala deskribatzen zuen bere burua.

OÑATI**Tenis pista estalia,
erabiltzeko moduan ▼**

Apirilaren 25ean geratu zen erabiltzeko moduan Zubikoa kiroldegiko tenis pista estalia. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek estreinatu zuten. Oñatiko Lana taldeko Elur enpresak egindako estalkiaz gain, argiteria egokia ere ipini zioten goiko tenis pistari; baita lurzorua ere. Lurzoru berriarekin, joko azkarragoa egiteko aukera egongo zen, eta aproposa izango zen hasiberri zein jokatzeko ohitura zutenendako.

**BERGARA****Optimizeren proiektua
Candyrendako, ezerezean**

Candy berrindustrializatzeko Optimize enpresak aurkeztutako proiektua atzera bota zuen Foru Aldundiak, "nahikoa heldutasun" ez zuela iritzi ondoren. MUREkin batera, beste aukera batzuk aztertzeko hasi zela ere jakinarazi zuen Aldundiak. Langileen ordezkariek, euren aldetik, kritikatu egin zituzten erakundeak eta komunikabide batzuk. Euren esanetan, Foru Aldundiak ez zuen aurkeztu alde aurretik langileekin adostutako baldintzak betetzen dituen planik.

DEBAGOIENA**Joste Egun jendetsuak, Gure Esku Dagok deituta ▲**

Joste Eguna edo Ehuntze Eguna egin zuten hilaren 25ean Aramaion, Bergaran eta Oñatin, Gure Esku Dagok deituta. Erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldiotan, kalejirak, bertsoak eta musika eta bilkurak egin zituzten eta oihalak erabili zituzten aldarrikapenak egiteko.



Bertan
igogailuak | ascensores

- Debagoiengan finkatutako enpresa, **%100 euskalduna.**
- **Iraupen-konpromiso barik** funtzionatzen duen enpresa bakarra.
- **24 orduko benetako zerbitzua** eta pieza guztiak barne 100 €-tik aurrera.



GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

www.bertan.eus | info@bertanigogailuak.eus
Garaia, Goiru 1A - 20500 ARRASATE • Tel.: 943 90 34 50 | 691 64 79 65



ARRASATE | MARIA UBARRETXENA | EAJ

15

URTE

Mundukide erakundea 15. urteurrena ospatzen hasi zen maiatz hasieran, erakusketa ibiltariarekin eta *Batu taupadara* bazkietza kanpainarekin.

BERGARA BEÑAT REZUSTAK BURUZ BURUKO EDERRA EGIN ZUEN

Beñat Rezusta pilotariak buruz buruko txapelketa ederra egin zuen, bi kanporaketa irabazita; bigarrena, maiatzaren 8an, Yves Xalaberriren kontra jokatu zuen, Bergaran. Hurrengo aste bukaeran galdu egin zuen Irujoren kontra.

ESKORIATZA ATAMA TALDEA, BIKAIN MUNDUKO TXAPELKETAN

Domina piloa irabazi zituen Atama kenpo taldeak Munduko Txapelketan, Turkian. Joseba Izurategik 2. eta 3. postuak lortu zituen; Ariane Piñerok, bi 3. postu; eta David Finisterra 4. geratu zen borrokan. Taldeka txapeladunorde izan ziren.



BERGARA | JUANJE ALBERDI | EAJ



ARETXABALETA | UNAI ELKORO | EAJ



ESKORIATZA | JOSE RAMON ZUBIZARRETA | EAJ



OÑATI | MIKEL BIAIN | EH BILDU



ANTZUOLA | BEÑARDO KORTABARRIA | EH BILDU



ELGETA | IRAITZ LAZKANO | EH BILDU



ARAMAIO | LIJERNI ALTUNA | EH BILDU



LEINTZ GATZAGA | ENEKA ZANKADA | LGHE

DEBAGOIENA

Lau udal berreskuratu zituen EAJk ▲

Pluralagoa zen Debagoiena maiatzaren 24ko udal hauteskundeen ondoren. EAJk irabazi zuen EAEn, eta Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalak berreskuratu zituen. EH Bilduk Oñatiko, Antzuolako eta Aramaioko udalei utsi zien eta Elgetan ere irabazi zuen. Gatzagan LGHEk irabazi zuen berriz.

Debagoieneko boto guztiak zenbatuta, EH Bilduk irabazi zuen, 12.933 botorekin (%39,86); EAJk 12.468 lortu zituen (%38,43).

OÑATI

Izarraitz Aloña Mendi, Euskadiko Txapelketan ►

Izarraitz Aloña Mendi eskubaloitaldeak ez zuen hutsik egin, eta goraino betetako kantxan 25-31 irabazi zion Barakaldori maiatzaren 30ean. Hala, Rafa Zulueta mutilak Euskadiko Txapelketara igo ziren. Hurrengo denboraldirako aldaketak iragarri zituen Zuluetak; tartean, berak ez zuela jarraituko, ez eta taldean urte askoan ibili izandako Joxe Gartzia eta Aitor Aranburuk ere, eskubaloia uztea erabaki zuten eta.



LIZKER
Tel.: 943 71 80 52 AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitorpena

Zorionak eta Urte berri on!

Errementari plaza 2-3 behea • OÑATI

autopullmans
Araba



Zorionak eta urte berri on!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

OÑATI
ALOÑA MENDIKO NESKAK,
GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Aloña Mendiko gazte mailako emakumezkoen futbol taldeak titulu bat irabaziz agurtu zuen denboraldia: Gipuzkoako Kopa Txapelketa irabazi zuten. Azkoagainen jaso zuten oroigarria Aloñako neskek maiatz bukaeran.

ESKORIATZA
ESKOLORE PROIEKTUA ABIARAZI
ZUTEN ZAZPI ELIZATEEK

Elizateak batzen zituen Eskolore proiektua jarri zen martxan, eta Eskolore jaia egin zuten maiatzaren 29an. Proiektua bera hiru ibilbide homologatuk osatzen zuten. Hain zuzen, pausoz pauso, betiko bideetako gozamina pauso berrietan bildu zuten.


BERGARA
GIPUZKOAKO ITZULIKO ETAPA
BAT JOKATU ZEN

Bergaran hasi zen, hilaren 15ean, Gipuzkoako II. Itzulia, ziklismoan, eta erlojupeko proba jokatu zen. Gloria Rodriguez 23 urteko murtziarrak irabazi zuen etapa. Hain zuzen, 2 minutu eta 31 segundotan egin zituen probaren 2 kilometroak.



ARRASATE
OSKAR
GOITIA
MONDRAGONEKO
KIDEA

Maiatzaren 25a ezker, Oskar Goitia gasteiztarra zen Mondragon Korporazioko Nazioarteko Dibisioko arduradun, Josu Ugarteren orde.



ARAMAIO
PERU
ABARRATEGI
BERTSOLARIA

Hilaren 23an bukatu zen Arabako bertso eskola arteko txapelketa, eta Peru Abarrategi irabazi zuen. Kanpezun ospatu zen bertso festa ederra.



LEINTZ GATZAGA

Gatzagarren erretratu
liburua aurkeztu zuten ▲

Maiatzaren 28an aurkeztu zuten *Gatza*, gatzagarren erretratu liburua. Leintz Gatzagako bizilagunen errolda grafikoa zen eta Joxefe Diaz de Tuesta arrasatearrak egin zituen argazkiak. Lau urteko lana izan zen. Liburuak 128 orri, formatu etzan samarra eta pasta ia gogorra zuen, eta gatzagarren erretratuak koloretan jasotzen zituen. Familia argazkiek alderik aldeko espazioa hartzen zuten, eta beste orri batzuetan hainbat argazki zeuden.



ESKORIATZA

Omenaldi hunkigarria
Itoitz Armendaritzi ◀

Itoitz Armendaritz munduko mushing txapeldunari omenaldi berezia egin zioten hilaren 28an Zaldibar antzokian. Aretoko sarrean haren argazkiak, kamisetak... zeuden zintzilikatuta apaingarri gisa, eta lagunek, familiakoe eta herritarrek aretoa bete zuten.

Egindako lana aitortzeko omenaldiak txapelduna hunkitu zuen. Honako hau esan zuen: "Ez nuen espero horrelako omenaldirik; egia esan, ez nekien zertara nentorren ere".

ARRASATE

Julio Galartaren
margolanak Gasteizen ▲

Julio Galartaren margolanen erakusketa ireki zuten hilaren 29an Gasteizko Vital Kutxa Fundazioa gelan. *Julio Galarta: gogo duen paisaia-pintorea* zuen izena erakusketak, eta 100 bat lan batzen zituen. Margolanez gain, materiala, marrazkiak eta beste hainbat bitxikeria bildu zituzten. Hain zuzen ere, Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkartekoak, Arrasateko Udalarenak eta beste hainbat bilduma partikularretakoak ziren lanak.





HORTZ KLINIKA
UARKAPE
Nicolas Bermejo doktorea

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85



Zorionak
eta urte berri on!

08:30 - 20:30
eguerdian zabalik!

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92
BERGARA



ARRASATE
LAIDA RAMOS
BORROKALARIA

Laida Ramos borrokalari arrasatearrak kyokushin karateko Europako txapelketa irabazi zuen maiatzaren 16an eta 17an Estonian.

25
URTE

Arrasateko Margo Taldeak 25 urte egin zituen, eta erakusketa ireki zuen hilaren 9an. Belaunaldi eta korrante askotariko 30 artistaren lanak ipini zituzten.

10
URTE

Eskoriatzako Atxorrotx kultura elkarteak 10 urte egin zituen, eta, jendeari eskerrak emateko, egun osoko jaialdia egin zuen maiatzaren 9an.



ARETXABALETA

Demetrio Iriarteren mendeurrena ospatzen hasi ziren ◀

Demetrio Iriarte musikari eta konpositorearen mendeurrena ospatzeko lehen ekitaldia egin zuen herriko Txistulari Taldeak hilaren 24an. Omenaldiak abendura arte iraun zuen. Txisturako 150 obra baino gehiago konposatu zituen Iriartek eta 1992an Euskal Herriko Txistulari Elkarteak urrezko domina eman zion.

ARRASATE

Garbigailuak ekoizten hasi zen Fagor CNA

Agindu moduan, garbigailu eta garbigailu-lehorgailuen ekoizpena hasi zuen Fagor CNA Group Garagartzako lantegian maiatz erdialdean. Fagor zein Edesa markapean merkaturatuko zituzten 8 eta 9 kiloko garbigailuak. Hasierako asmoa zen urteko 50.000 gailu egitera heltzea. Edesa Industrial S.A. izena hartu zuen Garagartzako lantegiak. Azarotik abian ziren labe eta egoste plaken, presio-lapikoen (Eskoriatzan) eta gas berogailuen (Basaurin) lineak.



OÑATI

Minbizia duten umeei laguntzeko jaialdia ◀

Minbizia duten umeei eta haien gurasoei eskainitako jaialdi solidarioa egin zuten Jose de Azpiazu musika eskolak, Oñatz dantza taldeak, txistulariek, bertsolariek, ikastetxeek, Irrien Lagunak elkarteak eta Markel Irizarrek hilaren 23an. Helburua izan zen Aspanogi elkarteari laguntzea. "Musikaren bidez, oraingoan ere bai alaitasunaren bidez, botikarik onena alaitasuna baita, nahi duguna da alaitasun hori Donostiako ospitalean dauden piratatxo guztien-gana iristea", esan zuten.



Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30
Ostirala: 09:30 > 18:30
Larunbata: 08:30 > 12:30
Astelehen, Astearte eta Asteazkenetan %20ko eskaintza
Ostegunetan %20ko eskaintza (mutilak)

Jean Louis David

Ibargarai 43 • 20570 Bergara • 943 76 22 48 • www.jeanlouisdavid.com

BERGARA

EKITALDI MORDOA GAZTETXEAREN HAMABOSGARREN URTEURRENEAN

Bergarako gaztetxearen hamabosgarren urteurrena ekitaldi askorekin ospatu zuten; Gose eta Kopla Barik taldeen kontzertuekin, besteak beste. Ekainaren 13an Gaztetxe Eguna egin zuten eta herriko musikariekin osatutako taldeen emanaldiak izan ziren.

ARRASATE


40KO HAMARKADAKO ARRASATE EZAGUTZEKO 'ARRASATE 1945'

Arrasaten 1940ko hamarkadan egondako dendak, fabrikak, negozioak eta pertsonaiak ezagutzeko erakusketa zabaldu zuten ekainaren 12an Arrasate Zientzia Elkarteak eta Udalak. 200 bat erretratu eta beste 200 bat pieza jaso zituzten erakusketan.

ANTZUOLA

UZARRAGAKO ELIZAREN KANPAIA ALBANIAR JARRI ZUTEN

Eskoriatzako Jesus Madinabeitia apaiz marianista bizi den Albaniako Tresh herrira bidali zuten Uzarragatik kanpaia, eta hango elizatzoko batean jarri. Argazkiak eta bideoa erakutsi zizkien apaizak antzuolarrei, bisitan etorritakoan.



BERGARA

AITOR GARITANO HAUR KANTARIA

Euskal Herriko haur kantarien finala irabazi zuen Aitor Garitanok ekainaren 13an. Eta Aramaioko neska talde bat hirugarren geratu zen taldekako sailean.



OÑATI

RUPER ORDORIKA MUSIKARIA

Adarra saria jaso zuen Ordorikak ekainaren 21ean Donostiako Udalaren eskutik. Oñatiarra saritu gura izan zuten euskal musikan egindako ibilbideagatik.



OÑATI

Kultura ondarearen zerrendan 11 aztarnategi

Oñatin dauden hamaika aztarnategi euskal kultura ondarearen zerrenda orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman zion ekainean Jaurlaritzak. Aztarnategi horiek honako hauek dira: Aitzabal 33, Aizkirri, Arrikruz, Kobailun, Madinakozubieta, Otalora I, Potorrosin VI eta VII, San Elias, Txomenkoba Erdikua eta Urtaopotolueta. Aztarnategia bera eta inguruak duen balioa babestea eta eremu bakoitzeko jarduerak mugatzea zen helburua.

BERGARA

Bi proiektu berri aurkeztu zituzten Candy lantegirako

Birziklapenean oinarritutako bi proiektu aurkeztu zituzten Candy lantegirako. Ekainaren 22an Bergarako udaletxean egindako bileran Foru Aldundiko aurreko gobernu-taldeak bideratutako bi proiektu industrial osagarri jarri zituzten mahai gainean. 50 bat lagun elkartu ziren han, eta, enpresa komitearen esanetan, bi proiektuok "serioak" ziren. ELAtik jakinarazi zuten, baina, ezer ez zela behin betikoa.

ARRASATE

Hondakinen bilketa sistema berria, helburua betetzen ▶

Bilketa sistema berria martxan jarri aurretik zehaztutako helburuak bete zituzten arrasatearrek ekainera bitartean, eta bilketa selektibo mailaren lehen emaitza %77,7koa izan zen. Hori horrela, Hondakinen Mahaiko kideak pozik azaldu ziren ekainaren 9an egindako agerraldian (argazkian), eta herritarrak zoriondu zituzten. Hala ere, oraindik egiteko asko geratzen zela gogorarazi zuten: "Bereziki, organikoaren kalitateari zegokionez".

OÑATI

Jendetza batu zen Fan Hemendik egunean ▶

Urtero ospatzen duten Fan Hemendik eguna debeka ezala eskatu zion Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariak, Jaurlaritzari. Ekainaren 13ko jai eta aldarrikapen eguna, baina, ez zuten debekatu eta sekula baino jende gehiagorekin ospatu zuten. Covite kolektiboko hiru ordezkari agertu ziren *Gorrotoka kanpora!* eta antzeko mezuekin. Ez zen istilurik izan eta festa giroan egin zuten manifestazioa.



**GOIKOETXE
HARATEGIA**

**ZORIONAK
eta urte berri on!**



Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

30

URTE

Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsak 30 urte bete zituen, eta, hori ospatzeko, erraldoien bilkura egin zuten ekainaren 27an, San Juan jaien barruan.

ESKORIATZA JAI HANDIA ASTE ZAPATISTAREN HAMABOST URTEAK OSPATZEKO

Ekainaren 15etik 20ra bitartean ospatu zuten Eskoriatzan Aste Zapatistaren hamabosgarren urteurrena. Bazkari mexikarra izan zuten jaia borobiltzeko, eta Imanol Ituiñoren magia saioa eta Rosa Sanchez kantautorearen kontzertua, besteak beste.

ARRASATE EREINDAJAN ELKARTEKO KIDEEK DENDA ZABALDU ZUTEN

Denda-topagunea zabaldu zuen Ereindajanean, kontsumitzaileek eta ekoizleek osatutako elkarteak, ekainaren 11n, eta Debagoiengan ekoiztutako barazkiak, frutak eta beste hainbat elikagai jarri zituzten salgai. Erreferentziatzeko puntu izan gura zuten.



ELGETA Ozkarbi elkarteak 50. urteurrena ospatu zuen ◀

Elgetako elkarteak 50 urteko ibilbidea egin zuen eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi izan zituzten ekainaren 8an. Herriko lehenengo elkarte mistoak izandako mendi saila gogoan Egoarbitzara mendi buelta egin zuten. Pilota, musika eta ehiza-arrantza sailak ere izan zituen, besteak beste, eta horren erakusgarri argazki mordo atera zituzten plazara. Baita materiala ere: kopak, txapelak, palak... Ekitaldiokin bukatzeko dantzan egin zuten gaztetxoek.



ARETXABAETA UDAk Hirugarren Mailarako txartela eskuratu zuen ▶

Aretxabaeta kirol elkarteak Oho-rezko Erregionaleko futbol taldeak igoera fasean ez zuten Hirugarren Mailarako sailkatzerik izan. Baina ekainaren 27an, Arenas de Getxo eta Gernika taldeek 2. B mailara igotzea lortzerakoan, UDak Hirugarren Mailarako txartela eskuratu zuen.

Oso pozik hartu zuten albistea aretxabaletarrek eta UDako kideek, eta elkarrekin ospatu zuten Herriko Plazan egindako agerraldian.



DEBAGOIENA Debagoieneko alkateek karguak hartu zituzten ▲

Ezusteko barik hartu zituzten alkate karguak ekainaren 13an. Arrasateko Maria Ubarretxenak uztaia jaso zuen Inazio Azkarragaurizaren eskuetatik (goiko argazkian) eta Elgetako Iraitz Lazkanok aginte makila (azpian). Hona hemen gainerako alkateak: Juanje Alberdi (Bergara); Mikel Biain (Oñati); Unai Elkoro (Aretxabaeta); Joserra Zubizarreta (Eskoriatza); Beñardo Kortabarria (Antzuola); Lierni Altuna (Aramaio); eta Eneka Zankada (Leintz Gatzaga).

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

RPS: 266/13



Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia.
- Odontologia Orokorra.
- Aho eta inplanteen zirugia punta puntako teknologiarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

Zorionak eta
Urte Berri On!

Bisita ezazu gure webgune berria: www.gorosabeldental.com

26 URTE ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DANOI!

Atxabaltar danoi
Zorionak eta urte barri on!



Aretxabaletako
Udala





**BERGARA
AINTZANE
OIARBIDE**
BIDE AZPIEGITURETAKO
DIPUTATUA

"Nire lehenengo lehenetasuna izango da Deskarga behin betiko bukatzea"

**ANTZUOLA
'HERRI LAGUNKOIA' PROIEKTUA
LANDU ZUTEN ERRETIRATUEK**

Herri lagunkoia proiektua lantzen hasi ziren erretiratuak otsailean, eta ekainean balorazioa egin zuten. 20 lagun zebiltzan lanean Antzuola pertsona nagusientzat egokitzeko asmoz. Herriaren gaineko galdetegia bidali zuten eta 200 erantzun jaso zituzten.

**DEBAGOIENA
7.000 IRAKURLE IRABAZI ZITUEN
'GOIENA' PAPERAK**

Goienako hedabideen audientziak gora egin zuen. Gorakadarik handiena *Goiena.eus*-ek izan zuen, %90ekoa, eta 7.000 bisitaldi zituen egunero. GOIENA paperak, ostera, 7.000 irakurle irabazi zituen Debagoiengan eta 5.000 Gipuzkoan.



**ARRASATE
Kontzertu berezia 'Jul'
Bolinaga omentzeko ◀**

Ekainaren 27an kontzertu hunkigarria eskaini zioten 2014ko azaroan hil zen *Jul* Bolinagari. Lagun zahar, musikari eta aurpegi ezagun asko elkartu ziren Monterron parkeko oholtzan eta inguruetan; horien artean, *Drogas*, Fermin Muguruza, Josu Zabala... Hiru orduetik gora iraun zuen jaialdiak, eta, besteak beste, RIP eta Kortatu taldeen kantak ekarri zituzten gogora. Uneoro egon ziren Bolinagaren eta RIPekoen irudiak presente.

**BERGARA
Arrano eta Artatse
konfiskatzeko agindua ▲**

Herriko tabernen auziaren barruan zeuden lokalak konfiskatzeko erabakia berretsi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak ekainaren 18an; horien artean zeuden Bergarako Arrano taberna eta Artatse elkarteak.

Erabaki horren aurkako hainbat ekitaldi egin zituzten Debagoiengan; Bergaran, esaterako, mila lagunetik gora elkartu ziren egunean bertan egindako manifestazioan, eta sanmartzialetan ere egin zuten elkarretaratzea.



TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean ipintzera arte dena gure esku Fabrikako preziotan

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**

Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrorra

• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astelehenetik larunbatera

10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabalik

ESKORIATZA

MARTXOTIK ITXITA ZEGOEN AP-1EKO ERREIA IREKI ZUTEN

Uztailaren 23an ireki zuten behin betiko AP-1 autobidean itxita zirauen erreia, Eskoriatzako zatian. Martxoan ezker zirauren itxita, luizi bategatik. Hala ere, obrek aurrera jarraitu zuten eta bide mozketak iragarri zituen Bide Azpiegiturako Sailak.

ARRASATE

900 LAGUN, ORDAINDUREN SALAKETA BABESTEN

Maiatzaren 14ko batzar orokorrean hartu zuen Ordainduk Mondragon Korporazioa auzitara eramateko erabakia, eta, uztailaren 15ean jakinarazi zuenez, ordurako 900 pertsonak egina zuten bat demanda horrekin.

BERGARA

HERZOG ANAIK, BEDIAGA ETA LORD WITCH, ARRAKASTATSU

Oxirondoko Santa Marina jaiak agurtzeko, kontzertu sorta berezia izan zen uztailaren 19an Irala kalean: Lord Witch, Idoia Bediaga eta Herzog anaiak, Mikel aitaren kolaborazio bereziarekin. Bada, kalea bete-bete egin zen emanaldiak ikusteko.



ARAMAIO PATXI SALABERRI
FILOLOGOA

Patxi Salaberri Euskal Filologian doktorea eta irakaslea euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak uztailaren 17ko bileran.

20
URTE

20. kanpaina hasi zuten Lezetxikiko indusketetan. Alvaro Arrizabalagaren aginduetara, uztail hasieratik hilaren 23ra arte ibili ziren 20 boluntario.



OÑATI

'Xolonpo'-ren errautsak San Martinen ▶▲

Jesus Urmeneta *Xolonpo* hil zen udaberrian, eta uztailaren 12an omenaldia egin zioten San Martinen, Trianako jaien barruan. Ruper Ordorikak zuzenean jo zuten.

Sindikatueta ibilia, gazte-txearen *aitona* zen, herriko futbol taldean ezaguna zen... Trianako jai batzordeak eta kuadrillakoek antolatu zuten omenaldia, eta jende asko joan zen. Hain zuzen, errautsak hantxe bota zituzten, San Martinen.



BERGARA

Kanpoko igerilekura sartzeko mugak ◀

Uztaileko lehen astean, bi aldiz itxi behar izan zuten denbora batez Agorrosingo kanpoko putzurako sarbidea, gehienezko erabiltzaile kopurua -187- ez gainditzeko. Hartutako neurriek -beste sarbide batzuk erabiltzea, itxoin behar izatea...- zenbait erabiltzaileren haserrea eragin zuten. Udaleko Kirol sailak gogorarazi zuen neurri horiek hartzerako "derrigor-tuta" zeudela, segurtasunarengatik eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak hala agintzen zuelako.

ARRASATE

Fagor CNA Group-en, gauzak "ezin hobeto" ▲

Fagor CNA Group-ek Fagor Etxetresnak izan zena bereganatu zuela urte bete egin zen hilaren 29an, eta gauzak "ezin hobeto" zihoazen, enpresaren esanetan. Hala, lau hilabeteen, bere ekoizpen-ahalmena bikoiztu zutela jakinarazi zuen enpresak. Ondorioz, Garagartzako lantegia errendimendu osoan ari zen lanean. Urrirako, egosketa sailaren ekoizpen ahalmena %30 handitu eta garbigailuena bikoiztu egingo zela aurreikusten zuten.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

RPS: 309/13

PODOLOGIA ETA ORTOPEDIA ZERBITZUAK



Arantzazuko Ama 19 A - OÑATI
Tel.: 943 53 36 37
Ordutegia: 09:00etatik 13:30era
15:30etik 21:00era
podourratsoinati@gmail.com

**=KANPAZAR**

Zorionak eta urte berri on!

Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84





BERGARA
ASIER ALTUNAREN 'AMAMA',
ZINEMALDIKO SARI NAGUSIRAKO

Sail Ofizialean eta sari nagusirako lehian, Donostiako 63. Zinemaldian egongo zen Asier Altuna *Kixi* bergararraren film berria, *Amama*. Altunak bakarka zuzendu duen lehen fikziozko lana da *Amama*.

3.600

EURO

Goiena Klubeko bazkideen eskuzabaltasunari esker, 3.600 euro eraman zizkion Goienak Ziburuko Kaskarotenea ikastolari.



DEBAGOIENA
MIKEL
IRIZAR
FORU HIZKUNTZA
ZUZENDARIA

"Ekarpen on bat egiteko moduan nago oso garrantzitsua den momentu batean"

BERGARA

Simon Arrietaren omenezko erakusketa ▶▶

Simonen ondarea izenburuarekin, Bergarako margolari Simon Arrietaren omenezko erakusketa zabaldu zuten Bergarako 22 margolarik eta Elgetako eskulturagile batek. Bergarako Laboratorium gizarte museoan ipini zuten erakusketa eta uztail bukaeratik urrira arte egon zen. Arrietak pintura-lanbidea eta pintura ikasten edo irakasten erakutsi zien margolariek margolan bana eta eskultura bat ipini zituzten, Simon Arrietarena berarena.



DEBAGOIENA

Udal gobernuak eratzeko osoko bilkurak uztailean

Udal gobernuak eratzeko eta batzordeak banatzeko osoko bilkurak egin zituzten uztailean zehar. Arrasaten, EAJ, PSE eta Baleiekek osatu zuten Udal Gobernuak; Bergaran, EAJk eta PSEk; Oñatin, EH Bilduk; Aretxabaletan eta Eskoriatzan, EAJk; Antzuolan, Elgetan eta Aramaion, EH Bilduk; eta Leintz Gatzagan, LGHEko kideek. Hilaren 13rako izendatuta zituzten udal guztiek Mankomunitaterako ordezkariak, nahiz eta erakundea irailean eratu.

ARRASATE

Polmetasak 60 urteak ospatu zituen ▶

Polmetasa enpresak 60. urterrena ospatu zuen uztailearen 3an. Iñigo Urkullu lehendakaria bertan izan zen; langileak zoriondu zituen, eta esan zuen "eredugarria" zela enpresa, elkarlana, parte-hartzea, nazioartekotzea eta berrikuntza erabiltzen zituelako. Bestalde, enpresako zuzendari nagusi Manel Perez Latrek azpimarratu zuen Europako lau autotik hiruk Polmetasaren piezaren bat daramatela.



ILE

E

A

ILE APAINDEGIA

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

f ilea peluqueria/ileapaindegia

♀

♂

Gabon jai zoriontsuak elgetar guztiei!

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Arrasate

urte berri on!

Tel.: 945 45 01 00
Faxa: 945 45 03 15

1.000

LANPOSTU

Mondragon Taldeko Industria kooperatibek ia 1.000 lanpostu sortuta bukatu zuten 2014a, uztailean jakinarazi zuten.

ANTZUOLA

HONTZA: ANTZUOLAKO BURUHANDI BERRIA

Lumak ditu eta begiak ireki eta ixteaz gain, gauzez, argia egiten dute; besteekin konparatuz buruhandi berezia da hontza. Herriko bosgarren buruhandia da eta gainontzekoena bezalaxe, hontzaren aita Iñaki Mata izan zen.

DEBAGOIENA

EZ MUNDUMIRARIK, EZ ORDEZKO JAIALDIRIK ERE

Ez Mundumira jaialdirik, ez haren ordezkorik ez egitea erabaki zuen Mankomunitateko Gobernu Batzordeak uztailean ospatu zuen 25. urteurrena Pausoka haurreskolak eskaintzak ez ziren egoki ikusi.

25

URTE

Herritarrekin, familia giroko jaialdian ospatu zuen 25. urteurrena Pausoka haurreskolak uztailean 4an.




BERGARA
AITOR
PAYROS
EHU-KO
IKERLARIA

Estratigrafian nazioartean ematen den sari garrantzitsuena jaso zuen Aitor Payros EHUko ikerlariak. Lau urtean behin banatzen dute sari hori eta Europako hirugarrena izan zen.

OÑATI

Gazte lokalak erabiltzeko gomendioak gertu ▶

Gazteen lokalak gaineko azterketa eta prozesu parte-hartzailea egin eta gero, lokaletarako erabilera egokirako gomendio batzuk adostu eta uztailean 14an aurkeztu zituzten. Inplikatu guztiek erabiltzaileak, gurasoak, lokalen jabeak eta bizilagunak adostu-tako arauak ziren. Segurtasunari eta duintasunari erantzuten saiatu ziren, eta baita bizilagunenganako elkarbizitza ziurtatzen ere. Udal ordenantzaren zirriborroa ere egin zuten.



ESKORIATZA

Zaharren egoitzako lehen faseko obrak bukatu ziren ▶

Urte eta erdi iraun zuten zaharren egoitzako lehen faseko obrek, 115.000 euroko kostuarekin. Banakako lau gela berri jarri zituzten, hiru komunekin, terraza egokitu zuten eta igogailu berria jarri. Lanotarako finantziarioaren zati handi bat partikularrek ipini zuten, emaitza ikusteko bisitak antolatu zituzten hilaren 24rako.



Zorionak eta
Urte Berri On!

Zer eskatu behar diozu Olentzerori?
Guk gutxienez...beste 25 urte!!

Diseinua, ingeniariaritz, prototipoak, fabrikazioa, kontrol tresnak eta ikuspen artifiziala

Ekide SL Telleria kalea F2 20500 Arrasate Tel.- 943 71 25 43 www.ekide.es

DEBAGOIENA

IRUÑERRIAN PODIUMA ERDIETSI ZUEN BOLINTXO-ULMA TALDEAK

Estatu osoko 200 txirindulariren artean bigarren postua lortu zuen Debagoieneko Bolintxo-Ulma taldeko Aritz Kortabarria txirindulari antzuolarrak. Taldea osatu zuten gainontzeko lau lagunak gogor borrokatu ziren hori eskuratzen laguntzeko.

ELGETA

EKAITZA LEHERTU ETA GOGOR JO ZUEN ELGETAN HIL AMAIERAN

Galgorri gaineko hondakinendako bi edukiontzi irauli egin zituen haizeak, eta adar zatiak jausi ziren Domingo Iturbe kalearen bukaerako etxebizitza baten gainera. Eibartik datorren errepide bazterreko zuhaitzetako adarrak ere apurtu zituen.



ARRASATE

IÑAKI ARANBURU
IK4-TEKNIKERREKO PRESIDENTE

Jesus Maria Iriondori lekukoa hartu zion, eta IK4-Teknikerreko presidente kargua hartu zuen. Ikerlanen 15 urtez eta Goizperren eta Oronan jardun du Aranburuk.

90
URTE

Abuztuaren 30ean 90 urte bete ziren Urbiako lautadan txangozaleei ongietorri abegikorra egiten dien fondak ateak ireki zituela.

7
URTE

Zazpigarren urtez, Eskoriatzako Atxorrotx mendian lanean dihardute adituek, han izan zen gazteluaren eta historiak utzitako aztarna oparoak azalarazteko.

OÑATI

Ganbara abesbatza, Arezzotik garaile ▶

Italiatik eskuak beteta etorri ziren Oñatira Ganbara abesbatzakoak. Nazioarteko jaialdian musika garaikideko eta koru mistoen saileko lehiaketan bigarren sariak eskuratu zituzten, Aitor Biaini zuzendari onenaren saria eman zioten eta Errenazimenduko sailean puntuaziorik altuena lortu zuten. 20. urteurreneko ospakizunetan dabilen abesbatza nazioarteko beste zazpi talderekin lehiatu zen Arezzoko Guido d'Arezzo jaialdian.



DEBAGOIENA

Turismoak gora egin zuen uztailean eta abuztuan ▶

Turismoak gora egin zuen uda sasoiaren orokorrean eta gorakada hori Debagoiengan ere nabaritu zen. Adibidez, Eskoriatzako Gorosari landetxean eta Arantzazuko Sindika eta Arantzazu hotelan abuztua eta, batez ere, uztailean okupazio betekoak izan ziren. Oñatin 4.000 bisitari baino gehiago izan zituzten. Bergaran 2.000 lagun bizi izan zuten, eta San Pedroko kristoaz eta *Bergarako besarkada-z* galdetu zuten, besteak beste.



OÑATI, ESKORIATZA

Aizkorri-Aratz eremuko lurjabeak batera ▶

Aizkorri-Aratz eremuan lurrak dituztenek edo lurren erabiltzaile direnek hainbat batzar egin zituzten, Aizkorri-Aratz parkeari ezarri gura dioten Kontserbazio Bereziko Izendapenaren ondorioak zirela eta. Indarrak batu eta proiektuari alegazioak aurkezteko Jaurlaritzak ezarritako epea luzatzea lortzeaz gainera, lortu zuten aurrera begira talde moduan aintzat hartzea eremuari dagozkion erabakiak lantzeko orduan.



ANTZUOLA

Uzarragako eraikin-multzoa itxita ▲

Seguratasuna bermatzeko itxi egin zuten sare metalikoz Uzarraga auzoko eraikin multzoa, eraikinok erortzeko arriskuan zeudela ikusita. Gotzaindegiarenak dira, eta hari dagokio erabakitzea zer egin behar den. Bien bitartean, baina, ixtea erabaki zuten.

Zorionak eta urte berri on bergarar guztioi

Azpeitxi
Etxagi
Irish Pub Galways
Bule
Euxebio II
Toki Ona Bodegoia
Usoa
Ariznoa
Pol Pol

ESKORIATZA
MINTZODROMOA EGIN ZUTEN,
EUSKARA IKASLEEI LAGUNTZEKO

Eskoriatzako Berbalagunek antolatuta, euskaraz berba egiteko Mintzodromoa egin zuten irailaren 25ean. Talde txikietan antolatuta, ordubetez euskaraz hitz egiten jardun zuten ikasleek eta horretan laguntzen zebiltzan beste herritar batzuek.

ARAMAIO
ARAMAIOARRAK ETA
OTXANDIARRAK MARIXEKAN

Oinez, bizikletan edo autoan, jende asko joan zen Uribarri auzora Marixeka eguna ospatzera irailaren 6an. Aramaiokoak eta Otxandiokoak izan ziren nagusi, eta hamaiketako egin zuten Gure Aterpea elkarteok jarritako postuan.



BERGARA
VALEN
MOÑUX
ZUZENDARIA

Donostiako Opus Lirica elkarteak Valen Moñux eta Alex Odriozola aukeratu zituen, lehiaketan, *La Traviata* zuzentzeko. 2016ko otsailean estreinatuko da.



BERGARA
JUAN JOSE
MURGIONDO ETA
ROSARIO BELASTEGI
ARTZAINAK

"Artzaintza gustatu egin behar zaizu; bestela, zaila da aurrera egitea"

2,5
MILIOI EURO

Eroskik 2,5 milioi inbertitu zituen Debagoienean eraldaketetan; horietatik 1,7 Arrasateko hipermerkatua berritzen. Bi supermerkatu ere berritu zituen.



ARRASATE

Gureak-en tailerra gertu, obrak egin ondoren ▲ ▼

Tailer berritua inauguratu zuen Gureak taldeak irailaren 10ean. 25 urte zeroan Bidekurutzeta kaleko lokalak, eta bi hilabeteen berrikuntza lanak egin zituzten. 147 langile zeuden. Udalak tailerraren ondoan zegoen 800 m2-ko lokala utzi zion Gureak taldeari, eta hori aprobetxatu zuten instalazioetan hobekuntzak egiteko.

BERGARA

Jose Luis Elkoro, libre; ekitaldia egin zuten ▲ ▶

Jose Luis Elkoro erabat aske utzi zuten irailaren 3an. GOIENAK egindako elkarrizketan, Elkorok honako hau esan zuen: "Kartzelan sartu aurretik Guardia Zibilak aitortu zidan bazekitela ez nintzela kargu haien arduradun". Hurrengo astean, ospakizun ekitaldia egin zuten, hainbat hizlarirekin: Mariano Ferrer, Juanjo Alvarez, Pablo Gorostiaga, Victoriano Gallastegi, Jose Antonio Altuna... Elkorok esan zuenez, "bakea lortzeko batasuna behar da".



Hyundai Tucson berria
Aldaketa jokabidea da

Tucson berria
18.900 €tik
aurrera.

Aldaketa gure bizitzari lotuta dago. Berari esker sententzio berriak ezagutzen ditugu eta une beteak gozaten, gure irudimenaren motorra baita. Jarrera hori esker jaino da Hyundai Tucson auto berria. Bere iburra eta berrikuntza teknologikoei zure gidatzeko era aldatzen lagunduko dizute. Saia zaitzen aldatetaren indarra ezagutzen: www.hyundai.es-en.

Hyundai Tucson Gama: CO₂ (gr/km) emisioak: 119-175. Kontsumo mixtoa (L/100km): 4,6-7,5.

#changeisgood



OARSO CAR
GIPUZKOAN DEALER BAKARRA
www.oarsocar.com



OIARTZUN
943 49 48 30
Lintzirin poligonoa 1
(Leroy Merlin ondoan)

BEASAIN
943 80 40 54
Errepide nagusia
(Hotel Castillo ondoan)

ELGOIBAR
943 74 14 80
Olaso poligonoa 17

IRUN
943 63 97 69
Behobia zubia



ARAMAIO
IBABEKO ANDRA MARIEN
HISTORIA, LIBURU BATEN

Ibabeko Andra Mari kofradiaren 500 urteko historia jasotzen zuen liburua aurkeztu zuen Josemari Velez de Mendizabal egileak, Cristina Etxenausia eta Rafael Bengoarekin, irailaren 6an. Gaur egun, 131 kide ditu kofradiak.



ARAMAIO
ANDER
BENGOA
ZIKLISTA

Ander Bengoak irabazi zuen BTT Euskadiko Opena, Master 30 mailan, irail erdialdean. Emaitza onak ikusita, Conor Saltoki Berriainz taldeak fitxatu zuen.



ARRASATE
EDUARDO
URIBESALGO
TERNUAKO KIDEA

EOCA (European Outdoor Conservation Association) elkarteko batzordeko kide izendatu zuten Ternuako sortzaile Eduardo Uribe Salgo.



BERGARA
Irizar saria 'Amama'
filmari Zinemaldian ▶

Asier Altuna zuzendari bergararraren *Amama* film luzeak Irizar saria irabazi zuen 63. Donostiako Zinemaldian, irailaren 26an. "Zinemaldiak eskaini digun babesa eskertu nahi dut"; horiek izan ziren Altunaren hitzak garaikurrara jasotzerakoan. Kursoaleko oholtzan, bergararra ez zen bakarrik egon; ondoan izan zituen filmaren ekoizlea eta Amparo Badiola aktorea. Tuteran, Viana eta Montpellier-eko lehiaketetan ere sari bana irabazi zuen filmak.



ESKORIATZA
Hondakin biltzetaren
gaineko galdeketa

Hondakinak selektiboki biltzeko sistema aukeratzeko herri galdeketa egitea aho batez erabaki zuten osoko bilkuran zinegotziek irailaren 21ean.

Hasieran baten galdeketa plan-teatutako aukerak bi izango baziren ere, azkenean, eskoriatzarrek hiru aukera izango zituzten herri galdeketa: atez atekoa, bosgarren edukiontzia eta mistoa –edukiontzi kolektiboa eta individuala–. Azaroaren 26an egitea erabaki zuten.

ARAMAIO

Txirritolak, txotx irekiera, eta herriko ekoizleek, ardoa ▲

Txirritola euskara elkarte eta herriko sagardogileak izan ziren Sagardo Eguneko protagonistak, irailaren 26an. 12 urtean Sagardo Eguna antolatu duen Txirritola elkarteko ordezkariak egin zuten txotx irekiera. Ondotik, etxeko sagardoa eskaini zuten 13 sagardogilek.

OÑATI

45. Haurren Egunean,
omenaldia sortzaileei ▶

Oñatiko Haurren Egunean 45 urte bete zituen 2015ean, eta lehen aldiz antolatu zutenek omenaldia jaso zuten Foruen plazan irailaren 13an: Jabier Etxezarreta, Lurdes Idoiaga, Ana Mari Kortabarria, Beatriz Igartua, Txaro Uribe txeberrria, Begoña Urkia, Axun Plazaola, Lourdes Osinaga, Gotzon Osinaga eta Jesus Irizar. Ezin izan ziren egon Berta Idigoras, Jesus Galdos eta Pedro Zelaia. Gogoan izan zituzten hildakoak: *Mielin* eta Iñaki Zelaia.



OÑATI

'Loreak', Espainiaren
ordezkaria Oscarretarako

Aitor Arregik ekoiztu eta gidioa idatzitako eta Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako *Loreak* filma aukeratu zuen Espainiako Zinemaren Akademiak datorren urtean banatuko diren Oscar sarietan ingelesez ez den film onenaren atalean lehiatzeko. Abenduan aukeratzen zituen AEBetako Akademiak behin betiko hautagaiak herrialde guztietatik bidalitako artean. Espainiak hautatzen zuen lehen euskarazko filma izan zen *Loreak*.



JUBAR[®]
ATEAK, S.L.



JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON
OPA DIZKIZUEGU
GUZTIOI!



Ate sezionalak



Ate bilgarria ate azkarrarekin



Neurri handiko ate bilgarriak



Langa mugikorak



Garajeko atek
Segurtasunezko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko agente tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak

Aluminiozko ate automatikoak




Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17 • 110 PK • ARRASATE
jubarateak@jubarateak.com • www.jubarateak.com



OÑATI
ARANTZAZUKO ARKITEKTOEI
OROITZAPEN-JARDUNALDIA

Arantzazuko Basilika eraiki zenetik 60 urte pasa zirela eta, arkitektoei oroitzen jardunaldia egin zieten. Han izan ziren Rafael Moneo, Saenz de Oizaren seme Javier Saenz Guerra eta Laogaren biloba Enrique Arenas Laorga.



ARETXABAETA
IKER
AZKOITIA
ZUZENDARIA ETA
AKTOREA

Zinemaldiko *Euskaraz bizi nahi dut* sariketan film labor onenaren saria jaso zuen Iker Azkoitiak. Hura izan zen zuzendari, aktore, gidolari eta ekoizlea.



OÑATI
MIKEL
BEITIA
EXEKUTIBOA

Mikel Beitia oñatiarrak dimisioa eman zuen Natra enpresako kontseilari delegatu gisa. Arrazoi pertsonalak argudiatu zituen horretarako.



BERGARA
Laboratorium museoa
inauguratu zuten ◀

Irailaren 25ean inauguratu zuten Errekalde jauregiko Laboratorium museoa. Erakusketa iraukorrean Errege Seminarioaren historia eta garai hartako bilduma zientifikoa osatzen duten jatorrizko piezak daude ikusgai gerotik, ilustrazioaren garaitik hasi, eta XX. mendera artekoak. Inaugurazio ekitaldian, zientzia eta hezkuntza arloetako adituak, herriko eta eskualdeko eragileak eta hainbat ordezkari politiko izan ziren.



ARRASATE
Txalapartariak Lorentxo Altube omendu zuten ▶▶

Uztailean hildako Lorentxo Altuberi omenaldia egin zioten Txakun txalaparta taldekoek antolatutako Kurtzetxikiparta jaialdian, irailaren 12an. Lorentxo Altuberen familiakoei hitz batzuk eskaini zizkieten eta bertan zeuden Kepa Altube eta emazte Igoneri "txalaparta horrenbeste jenderi erakutsi izana" eskertu zieten eta ostean bertso bat kantatu zieten. Koadroa ere oparitu zieten.



Euskal Selekzioa
Jatorrian txiki,
Garaipenean HANDI

www.astore.es



Mikel Rico
Athletic

Eneko Boveda
SD Eibar

Dani García
SD Eibar

Eli Ibarra
Athletic

Laura Prieto
SD Eibar

Maialen Zelaia
Real Sociedad

ESKORIATZA

KALTEAK EGIN ZITUZTEN BI GIZONEK ATXORROTZEN

Atxorrotzen bi gizon ibili ziren metal detektagailuekin babestutako gunea den Atxorrotzeko ermita pareko haitzaren inguruan. 50 zulo inguru egin eta Erdi Aroko metala eraman zuten. Udalak salaketa ipini zuen.

ARRASATE

LIDL ETA BM IPINIKO DITUZTE JOMAREN ORUBEAN

Joma lantegi zaharrak utzitako orubean Lidl eta BM kateko supermerkatuak ipiniko dituztela konfirmatu zuen urriko azken astean Baika Gestion enpresa sustatzaileak. Bi supermerkatuak 2016ko abenduan zabalik egotea aurreikusten zela esan zuen.

ARRASATE

EZINTASUN ABSOLUTUA, AMIANTOA DELA ETA

Gizarte Segurantzak laneko ezintasun absolutua aitortu zion Ifam Seguridad SLU (lehen Feliciano Aranzabal y Cia) enpresako langile bati amiantoarekin zerikusia duen lan-gaixotasunarengatik. Enpresak babesa adierazi zion.

OÑATI

ATHLETICEKO ORDEZKARIEN BISITA ARRIKRUTZERA

Athleticeko presidente Josu Urrutia, Ritxi Mendiguren jokalaria ohi oñatiarra eta taldeko hainbat ordezkari eta zale elkartu ziren urriaren 14an Arrikruz kobetan, Oñatiko zurigorrien lagunarteko kideek gonbidatuta bere 10. urteurrenean.



BERGARA
JUANJO
ALVAREZ
LEGELARIA

Bergarako UNEDeko zuzendari ohi Juanjo Alvarezek Eusko Ikaskuntzaren Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien saria jaso zuen.

ESKORIATZA

Parte-hartze handia Hiri Berritze egitasmoan ▶

Herriko auzo eta elizateetako hiri-altzari, zerbitzu eta azpiegiturak hobetzeko, herriko irisgarritasun eta mugikortasun arazoak konpontzeko eta eremu atseginoak sortzeko asmoarekin, ekimen parte-hartzailea hasi zuen Eskoriatzako Udalak. Bi batzar egin ziren herritarrekin, bat hilaren 19an eta bestea 21ean. Bakoi-tzean, 50 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten eta ekarpen ugari izan ziren.



BERGARA, ARETXABALETA, ESKORIATZA

Hondakinen bilketaz kontsulta iragarri zuten ▲

Hondakinen bilketa sistemaren gaineko galdeketa egitea erabaki zuten Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalak. Iragartzen lehenengoa Bergarako alkatea izan zen, urriaren 14an.



BERGARA

Emakumeen Mundu Martxa ailegatu zen bailarara ▲

Emakumeen Mundu Martxa Debagoienara, zehazki, Bergarar, ailegatu zen urriaren 2an, Kurdistandik abiatu eta sei hilabetera. Agorrosin parean jende asko zuen zain karabanak. Ekitaldia egin zuten San Martin plazan, eta gero, bazkaria.

DEBAGOIENA

Antzuola-Bergara tartera bisita egin zuten ▶

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiarbidek Beasain-Bergara autobideko azken tarteko (Antzuola-Bergara) lanak bisitatu zituen, bi herriotako alkateekin. Lurerauzketa eta haustura orokorra gertatu zenetik urtebetera izan zen bisita hori. Arduradunek esan zuten "lehenbailehen" bukatuta ikusi nahi zituztela lanak, eta autobidea 2018rako bukatuta egongo zela esan zuten.



Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK**BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otorla Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK**BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK**JESUS LASKURAIN PEREZ**

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ELGETA ERABILERARIK GABEKO EREMUAK AZTERTZEKO EKIMENA

Erabilerarik ez duten eremu publikoak herritarrei erakutsi, zein egoeratan dauden baloratu eta auzolanaren bitartez berreskura daitezkeen hausnartzeko, *Ateak irekiz* izeneko ekimena hasi zen urriaren 20an, herritarrekin bilera batekin.



ARETXABAETA ANDONI URZELAI IDAZLEA

Karanbola toxikoak liburua aurkeztu zuen Andoni Urzelai urriaren 29an. Euskarazko bere hirugarren liburua, 17 narrazioz osatutako bilduma da.

%20

GARESTIAGO

Kirol Zerbitzuaren 1 milioiko defizita %17 jaisteko helburuarekin, Agorrosingo tarifak %20 igotzea erabaki zuen Bergarako Udal Gobernuak.



BERGARA Simon Arrietaren gaineko liburuaren aurkezpena ▶

Simon Arrieta 1915-1969 liburua aurkeztu zuen Miguel Angel Elkoroberezibarrek Bergarako udaletxean urriaren 7an. Osoko bilkuren aretoan, liburua sortzeko parte hartu zuten hainbat lagun izan ziren, eta baita Simon Arrieta margolariaren familiarrak ere. Katalogo soila barik, "arimaz beteriko" liburua egin nahi izan duela azaldu zuen egileak, eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izan zela esan zuen.



ANTZUOLA

Kale ikuskizunez bete zen herria Artekale egunean ▲

Kale ikuskizunen Artekale elkar-tearen eguna ospatu zuten urriaren 18an Antzuolan. Euskal Herriko kale arteen elkar-eguna da hura eta artistak, banatzaileak eta erakundeak osatzen dute. Hamabost konpainiatako 45 partaideren eskutik, era guztietako ikuskizunek bete zituzten herriko kaleak, baina ikusmin handiena dantzari bertikal bikoteak elizako kanpandorretik egindako saioak eragin zuen. Zur eta lur, miretsita, utzi zituzten ikusleak.



BERGARA

2016ko Kilometroen lekukoa, Aranzadik ◀

Aranzadi Ikastolako ordezkariak urriaren 4an hartu zuten 2016ko Kilometroak jaia antolatzeko lekukoa, Usurbilen, Udarregi Ikastolaren eskutik. Aitziber Lopez de Aretxaga presidentea eta Ane Barruso zuzendariak hartu zuten lekukoa eta "gogor lan" egiteko borondatea agertu zuten. Gero, azaroaren 6an, Bergaran, leloa, logoa eta jantziak aurkeztu zituzten. Bergaran ospatzen den hirugarren aldia izango da.

35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

FAGOR 

www.etxe-lan.com



Tel.: 943 79 89 97
etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso Industrialdea, 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



2,24

MILIOI EURO

Loteria Primitiboko sari nagusia banatu zuen Arrasateko Nebraska tabernak urri hasieran: 2.243.955 euro. Eta kinielan ia 1 milioiko saria banatu zen Oñatin.



**ARRASATE
PAKO
ETXEBESTE**
ABADEA

Arrasateko abade berri Pako Etxebeste soziologoa da ikasketaz eta Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailazo taldeko kidea ere izan zen 70eko hamarkadan.

10

URTE

Antzuolako haurreskolak bertan hazitako umeekin ospatu zituen 10 urteak urriaren 2an. Ate irekiak, jolasak eta arduradunen eta alkatearen hitzak izan ziren.

ARETXABAETA

Bi ekitaldi berezi Demetrio Iriarte omentzeko ▼

Demetrio Iriarte txistularia jaio zeneko mendeurrenean, bi ekitaldi egin zituzten urrian, Aretxabaletako txistularien eskutik: batetik, urriaren 23an, Donostiako Udal Txistulari Bandaren kontzertua izan zen, eta bestetik, 24an, bailarako Txistulari Eguna ospatu zen; Aretxabaletan egin zen Iriarteren omenez, nahiz eta berez Arrasateri egokitzen zitzaien.



BERGARA, OÑATI

Herriko denden desfile arrakastatsuak ◀

Erabateko arrakastaz egin zen Bergara Bizi ekimenaren udazken-neguko moda eta diseinu berrien desfilea, urriaren 17an. Udalaren, Jaurlaritzaren eta Goienaren laguntza izan zuen. Herriko 34 komertzio eta 116 modelok hartu zuten parte.

Bezperan, Oñatin ere desfilea izan zen, Mendiko kalean, Osi, Maibi, Kimu, Urtxin, Urzai eta Beloki dendek antolatuta. 2 eta 80 urte arteko herritarrek desfilatzen zuten.



Amaiur Arrasate Osorik
Ekaitz Iluntz Taupa Etxoste Irati Dat
Jai Zale

BERGARA
EMAKUMEEN INDARKERIAREKIN
LOTUTAKO 33 INTERBENTZIO

Azaroaren 25aren harira Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi zuten 33 interbentzio egin zirela azarora bitartean, eta gehiengoak eraso psikologikoak eta fisikoak jasan zituela. Indarkeria matxista salatu zuten Debagoieneko herri gehienetan.

ARRASATE
ARIZMENDIARRIETA "IPARRORRATZ"
DELA BERRESTEKO EKITALDIA

J.M. Arizmendiarieta. *Un hombre, un pueblo, una experiencia* liburua aurkeztu eta Arizmendiarietaren hurbileko pertsonak omendu zituzten azaroaren 30ean, Kulturaten, haren mendeurreneko ospakizun ekitaldien barruan.

OÑATI
AUTOKARABANENDAKO
GUNEA INAUGURATU ZUTEN

San Martin auzoan hamazortzi autokarabanarendako jarritako gunea azaroaren 7an inauguratu zuten, eta Euskal Herriko txoko askotatik etorritako 100 lagun elkartu ziren. Pozik azaldu ziren, mahaia, eserlekuak, iturria eta ur zikinak uzteko tokia zituelako.

ARAMAIO
110 LAGUN EUSKARAREN
ALDEKO HERRI LASTERKETAN

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira herri lasterketa egin zuten azaroaren 28an, Euskararen Jarraipen Batzordeak deituta. Gazte eta heldu, 110 lagun elkartu ziren eta jai giroan egindako ekitaldian euskara izan zela "garaile bakarra" adierazi zuten.

ARRASATE
GOSEREN 'DISKO LARANJA'
SARITUA AEB-ETAN

Talde arrasatearrak 2012an kaleratu zuen lanean batutako "askotariko erritmo harrigarriengatik" eman zion saria Kalifornian egoitza duen The Akademiak. Goseko kideak "harrituta" zeuden, eta horrek ekar zezakeenaren esperoan.

**DEBAGOIENA****Birziklapen maila %70etik gorakoa izateko eskaera ▲**

Debagoieneko Zero Zabor taldeak, herri galdeketei begira, edozein sistema aukeratuta ere %70etik gorako birziklatze maila bermatzeko eskatu eta "etengabe hobetzer" egiteko dei egin zuten.

BERGARA-ESKORIATZA**Bosgarren edukiontzia**
garaile bi galdeketean ◀

Hiri hondakinen gaikako bilketa sistema hautatzeko galdeketa egin zuten azaroaren 29an Bergaran eta Eskoriatzan, udalek deituta. Bi herriotan bosgarren edukiontzia izan zen garaile; Bergaran botoen %62rekin (4.132 boto eskuratu zituen aukera horrek) eta Eskoriatzan %67rekin (1.300 boto). Eta bi herriotan ere, azpimarratzeko modukoa izan zen herritarren parte-hartzea tokian tokiko udal gobernuek deitutako herri-kontsultetan.

**ARRASATE****Oinezkoek lehentasuna**
Arrasate pasealekuan ▼

Zortzi hilabete iraun eta 1.260.000 euroko kostua izan zuten lanak bukatu ostean, azaroaren 13an, zabaldu zuten Arrasate pasealekua -argazkian, udal ordezkariak horren berri ematen-.

Orduetik, oinezkoek dute lehentasuna, autoek ezin dute 30 kilometro orduko abiadura gainditu eta zama astundun garraiorik ezin da bertatik pasatu. Bi autobus geltoki eta bizikletak uzteko hiru gune zehaztu zituzten, baita 22 eserleku jarri ere.

Debagoieneko

GREMIOAK

ARROZTEGIAK**AZKARATE AROZTEGIA**

BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**

ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA**EGIA ITURGINTZA**

ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL


ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK**ARGI-PLASTIK**

ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA**MAKAI KOOP. ELKARTEA**

ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45






DEBAGOIENA OROIMENAREN EGUNEAN ELKARRETARATZEAK EGIN ZIREN

Oroimenaren Eguna izendatu zuen Jaurilaritzak azaroaren 10a eta Debagoiengan hiru udalek egin zuten bat: Arrasatek, Bergarak eta Aretxabaletak. "Bizikidetzaren aldeko urratsa" iritzita elkarretaratzeak egin zituzten –Arrasaten EH Bilduko ordezkariak ez ziren izan–.

ANTZUOLA EUSKARAZKO AKTEN AUZIAN ALDEKO EPAIA JASO ZUEN UDALAK

Karlos Urkixok Antzuolako Udalaren aurka jarritako estatuko errekurtsioa alde batera utzi zuen Donostiako epaitegiak, eta euskarazko akten auziaren epaia Udalaren aldekoa zela ebatsi. Hala, osoko bilkuretako aktak euskaraz idazten eta Madrilera bidaltzen jarraitu zuten.



ARRASATE ISTAR DAPENA MALEN RUIZ DE AZUA ATLETAK

2014-2015 denboraldian egindako lan onengatik Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena saritu zituen Gipuzkoako Federazioak azaroaren 20an.



BERGARA

Jai giroa nagusi Jardunen 25. urteurrenean ▲

Paella lehiaketa, herri bazkaria, herriko bertsolariaren saioa, jolasak, mosaikoa eta beste hainbat ekitaldi izan zituzten azaroaren 23an, Bergaran, Jardun euskara elkartearen 25. urteurrena ospatzeko. Ehun bat lagun elkartu ziren pilotalekuan eta giro bikaina sortu zuten guztien artean. "25 urte jardun dugu lanean eta gaur ospatzeko hartu dugu eguna, baita aurrera begira indarrak hartzeko ere", zioen Nerea Mendizabalek, Jarduneko teknikariak.

ARRASATE

Omenaldia Isabel Iturbe eskola-maistrari ►

Isabel Iturbe (Arrasate, 1917-2015) eskola-maistra uztailean hil zen, eta haren ikasle izandakoak azaroaren 8an, Garagartzan, elkartu ziren hura omentzeko (argazkian).

Iturberen oroitzapen ederrak gordetzen dituzte ikasleek, bereziki Gesalibarko eta Garagartzako eskolan ibili zirenek. "Zorte handia izan dugu maistra eta emakume horren berezia izatearren", zioten, eta eskerrak eman gura izan zizkioten.



BERGARA

Alkatetza utziko zuela esan zuen Juanje Alberdik ▲

Azaroaren 16an iragarri zuen Juanje Alberdik Bergarako alkatetza eta Udala utziko zituela. Hala, "erabaki gogorra" izan arren ibilbide profesionalarekin jarraitzeko erabakia hartu zuela zioen. Urtea bukatu arte lanean jarraituko zuela Udalean esan, eta ziurtatu zuen taldeak "proiektu guztiak" eramango zituela aurrera. Era berean, eskerrak eman zizkien EAJri, afiliatuei, botoa emandakoei eta bergararrei, emandako konfiantzagatik.



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Zorionak
eta Urte
berri on!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32



Debagoienaren alde lanean

GUZTIOK BAT



20

URTE

Emakumeendako aisialdirako guneak euskalduntzen eta eskubide berdintasunaren alde lanean diharduen Arrasateko Ekin elkarteak 20 urte bete zituen.

ARRASATE FAGOR CNA EGUNA FAGOR "BIRSORTU" DELA OSPATZEKO

Fagor Etxetresnek "ibilbide berria" hasi zutenetik urtebete pasa izana ospatzeko Fagor CNA Group Eguna antolatu zuten azaroaren 21ean. Hainbat ordezkari politiko elkartu ziren; Arantxa Tapia eta Markel Olano, esaterako, baita langileak ere.



ARRASATE
FELIX
ARRIARAN
PILOTARIA

Azaroaren 10ean hil zen, 91 urterekin, Arriaran I.a pilotaria, Arrasateko pilotaren urrezko urteetako ordezkarietako bat anaia Paco eta Joxerekin batera.



OÑATI

Ekitaldi mordoia Oñatzen 45. urteurrena ospatzeko ▲

Zubillagako neska dantzari talde batekin hasi zuen ibilbidea Oñatzek 1970ean. Ordutik, asko hasi da dantza taldea, eta herritarrekin batera ospatu gura izan zuen urteurrena. Azaroaren 14an hasi zituzten aste-bete iraun zuten ekitaldiak. Ikuskizun nagusia (argazkietan) egin zuen Udal Musika Bandarekin, txistulari bandarekin eta Ganbara Abesbatzarekin batera, eta hitzaldiak eta herri bazkaria ere izan ziren.



BERGARA

Kilometroak 2016ko irudiaren eta arropen aurkezpena ◀▲

Azaroaren 6an egindako ekitaldian aurkeztu zituen Bergarako Aranzadi Ikastolak Kilometroak 2016ko irudia, arropak eta leloa (argazkian): *Demasa*. Usurbilgo Udarregi ikastolatik jasotako lekukoa herriari eskaini zioten ikastolako kideek, "herriarekin egin nahi" duten jaia delako. Eta helburu bi bete gura zituztela zehaztu zuten: soziala eta finantzarioa.

Goizperrek gabon jai
zorientsuak
opa dizkizue guztioi.

Urte berri on!
2016

 **Goizper Group**
Elkarlanean garatzen

Ihinzadura · Industria · Bioteknologia



DEBAGOIENA BYPASS BIDEZ IREKI ZUTEN KALTETUTAKO AP-1EKO ZATIA

Abendu hasieran ireki zuten azaroaren 27an lur-jausi batengatik itxitako AP-1eko tramua. Bi norabideetarako ireki zuten, bypass bidez, Eibarrerako noranzkoan, 121. kilometroan. Euriarengatik lurrak hartu zuen zamak eragin zuen lur-jausia.



BERGARA
JOSE ANTONIO
AGIRREBEÑA
ELIKAGAIEN
BANKUKO ARDURADUNA

"Jenero piloa dugu sailkatzeko, eta batutako guztia iritsi barik dago"

4,08

METRO

Malen Ruiz de Azua jausilari arrasatearrak Euskadiko indoor errekorra ondu zuen promesen kategorian, 4,08 metroko jauziarekin, abenduaren 12an.



ARRASATE

Atxabalpeko bigarren zelaia inauguratu zuten ►

Atxabalpeko bigarren zelaia inauguratu zuten abenduaren 15ean Eibar taldeko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak. Eibarrek erabiltzeko zelaia izango da datozen lau urteotan, luzatzeko aukerarekin. Mondrak 2007an bertan jokatzeari utzi zionetik 2014ra arte, inongo erabilerarik egon zen zelai hori. Eibar futbol taldeak inbertsio handia egin zuen, ohiko berdeguneaz gainera, alboko zelaian ere belarra jartzeko.



DEBAGOIENA

Euskaraz urteko egun guztietan egiteko ►▲

Euskararen Eguna –abenduak 3– modu berezian ospatu zuten Tokikom-eko euskal hedabideek, tartean Goienak, gaztelaniazko zenbakia argitaratuz, euren lana balioan ipintzeko.

Ohi bezala, bailarako herri guztiek izan zuten gogoan egun hori. Euskalgintzak hainbat ekin-tza antolatu zituen egun osorako, eta adin guztietako herritarrek parte hartu zuten. Euskara urteko 365 egunetan erabiltzeko aldarria egin zuten.



BERGARA

Elena Lete izendatu zuen EAJk alkate izateko ◀

Juanje Alberdi alkate karguan ordezkatzeko, Elena Lete aukeratu zuen abenduaren 2an Bergarako EAJren Uri Buru Batzarrek.

Bergararra da Elena Lete, 50 urte ditu, arkitekto teknikoa da lanbidez eta Eusko Jaurlaritzan dihardu; Lurralde Antolakuntza eta Hirigintza zuzendaria da; Udalean, Hirigintza batzordeburua. Izendapena jakinarazi zenean, Letek "konfiantza eskertu" zuen eta pozik eta "ilusioz" azaldu zen.

*Egin
topa
gurekin!*

Bengoa
•
Ezkiña
•
Itzala
•
Monte
•
Okoretegi
•
Rumba
•
Txoko II



BERGARA
BERGARA GARBIAK BUKATUTZAT JO ZUEN BERE LANA

Hondakinen bilketaren gaineko galdeketa ondoren, 5. edukiontzia aldeko Bergara Garbia herri plataformak bere lana bukatutzat jo zuen, "inposaketa amaitu arte" lan egin izandako urteetan babesa eman zieten eskerrak emanda.

ARRASATE
NERE ARREGI ATLETA, GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Nere Arregi arrasatearrak hirugarren egin zuen Donostiako maratoian eta Gipuzkoako txapeldun izan zen. 2.54.52 izan zen haren denbora, bigarren sailkatua baino 5 segundo gehiago besterik ez. Arregik esan zuen ez zuela halakorik espero.

DEBAGOIENA
04/08 AUZIARI DAGOKION EPAIKETA HASI ZEN

Abendu hasieran, ezker abertzaleko 35 kide epaitzen hasi ziren Madrilén, Auzitegi Nazionalean; horien artean, Arrasateko alkate ohi Ino Galparsoro eta Aitor Arantzabal, Mikel Garaiondo eta Mikel Zubimendi bergararrak.

30
URTE**ARRASATE**
JANNE VALKEAJOKI
AKORDEOILARIA

30. urteurrena ospatu zuen Oñatiko Aloña Mendiko Igeriketa sailak abenduaren 12an. 100 lagun elkartu ziren, eta bakoitzak 30 metro igeri egin zituen.

Janne Valkeajoki finlandiarrek irabazi zuen Arrasateko nazioarteko akordeoi lehiaketa. Hilaren 6an izan zen ekitaldi nagusia.

**ARRASATE**
48 milioiko erreklamazioa Mondragon Taldeari ▲

Abenduaren 2an jakinarazi zuten Ordaindu eta Eskuratu elkarteek Mondragon Korporazioaren aurkako salaketa ipini berri zutela. Hain zuzen, Fagor Etxetresnak eta Edesa ixtearen ondorioz izan zituzten kalteak ordaintzeko, 47,8 milioi erreklamatzeko zioten korporazioari. Zehazki, 959 lagunek ipini zuten talde-salaketa. Euskadin, ordura arte aurkeztutako antzeko salaketetatik kalte-ordain handiena eskatzen duena da honako hau.

**ARETXABALETAKO, OÑATI**
Demetrio Iriarteren omenezko seilua ◀

Demetrio Iriarte danbolin-jotzaile eta txistulariaren gaineko erakusketa ireki zuten Arkupen abenduaren 2an, haren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan, Aretxabaletako txistulariek antolatuta. Horrekin batera, Zeka Oñati filatelia elkarrekin seilu berezia aurkeztu zuen, Iriarteren irudiarekin eta *Oñati 1915 Aretxabaleta 1997* testuarekin. 200 ale atera zuten, gehiago ere ateratzeko aukerarekin, jendearen interesaren arabera.

ARRASATE
Ziklo-krosak itzulera bikaina izan zuen ▲

Urteak Arrasaten ziklo-kros barik egon ostean, itzulera borobila izan zuen kirol jardura horrek abenduaren 13an. Markulete eta Ikutuxo inguruko zelaia ziklistaz bete ziren: 220 irteera puntuan. Jose Antonio Diez Arriola (aldapa gogorrenak bizikleta gainean igo zituen bakarra), elite kategorian, eta Olatz Odriozola, emakumezkoetan, izan ziren txapeldunak. Zigor Urainek parte-hartzaile arrasatear onenaren saria jaso zuen.

**Murillo Garajea**
Auto konponketak orokorrean**Gabon zoriontsuak bergarar guztioi!**Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84**Mobiliario ARENAZA** altzariakBizkaia kalea 1 Aretxabaleta
943790807
mobiliarioarenaza@hotmail.com*Gabon zoriontsuak guztioi!*

ANTZUOLA
EUSKARAZKO AKTEN AFERAN,
UDALAREN ALDEKO SENTENTZIA

Udal aktak euskara hutsean bidali izanagatik helegiteak aurkeztu zituen iaz Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkari Carlos Urkixok zenbait udalen aurka. Antzuolako Udalak aldeko sententzia jaso zuen abendu hasieran.




BERGARA
JUANJE
ALBERDI
ALKATEA

"Bilketa sistema batek zein besteak emaitza berberak lortu beharko lituzke"



ESKORIATZA
JOSERRA
ZUBIZARRETA
ALKATEA

"Ez dugu bosgarren edukiontzirik nahi gero gauzak gaizki egiteko"



DEBAGOIENA

EH Bildu lehen indarra baina nabarmen behera eginez ▶▲

Debagoiengan EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien, baina 2011ko datuekiko beherakada nabarmena izan zuen: 6.000 boto pasakoa. EAJ da botoak irabazi zituen bakarra eskualdean, eta azpimarratzekoa da Podemosen estreinaldia, ia 8.000 botorekin; Arrasaten, adibidez, lehen indarra izatera iritsi da. EAEn, berriz, EAJk eskuratu zuen ordezkari-zarik handiena, nahiz eta bototan Podemos-Ahal Duguk irabazi.



ARRASATE

Arizmendiarrietaren gaineko ekitaldi hunkigarria ▲

J.M. Arizmendiarría. Un hombre, un pueblo, una experiencia izeneko liburua aurkeztu zuen Arizmendiarrietaren Lagunak elkarteak. Haren oroitzapena egin zuten abadearen gertuko izan ziren 10 lagunek; tartean, kooperatiben sortzaileek. Gipuzkoako ahalzun nagusi Markel Olanok Arizmendiarrietaren "eredua" eta "humanismoa" goraiatu zituen. Ekitaldi hunkigarria izan zen.

Inork ez daki zaintzen zerbait, sortu duenak baino hobeto

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- Gas-galdararen urteko azterketa.
- Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.
- Eta hemendik aurrera, **zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.**

Sematec Guipúzcoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala

943 76 06 61

www.guipuzcoa.saunierduval.es



Saunier Duval



Urteko onena & txarrena

Kataluniako prozesua, kultura eta euskalgintza, urteko gauza onenen artean; beste aldean, gerrak eta errefuxiatuen egoera



ANE ZUAZUBISKAR
BERTSOLARIA
ARRASATE

↑ 'LOREAK' OSCARRETARA
"Loreak pelikula Oscar sarierako aurreailekatu izana. Euskal kulturari eta zinemari bultzada izugarria izan da eta izango da. Garrantzitsua, atzetik egon den lanagatik eta ekarriko duen guztiagatik".

↓ GOIENARI ERASOA
"Goienari egindako eraso aipatuko nuke. Ekainean Goienaren egoitzan agertutako pintadez ari naiz. Nire ustez, ezin da zalantzan jarri Goienak eskualdearen eta euskalgintzaren alde egiten duen lana".



JOSE AGUSTIN IBARLUZEA 'TXISPAS'
HERRITARRA
ARRASATE

↑ KATALUNIAREN BIDEA
"Euskaldun bezala, inbidia osasuntsua sentitu dut kataluniarrei begira. Pena da hemen erabakitze eskubidearen alde elkartzeko kapaz ez izatea. Baina polita da han herria martxan ikustea".

↓ ERREFUXIATUAK
"II. Mundu Gerra ezker ez da horrenbeste errefuxiatu izan Europan. Oso baldintza txarretan daude, herrien artean galduta, eta orain negua dator. Mendebaldeko inperialismoa da hori. Guk ere badugu erruaren parte bat".



TXEMA ABARRATEGI
GARABIDE
ARAMAIO

↑ ALKATE EUSKALDUNAK
"Aspaldiko partez ditugu Iruñean, Bilbon, Lizarran eta Gasteizen, esaterako, eta iruditzen zait hamarkada askoan inoiz baino gehiago direla. Ea udalbatza euskaldunetarako lehen pausoetan gabiltzan".

↓ GERRA
"Askotarikoa, munduko bazter askotan. Eta gatazka horiek elikatzen dituztenak eta ezikusierena egiten dieten komunikabideak uste baino gertuago. Erantzukizunak ukitzen gaituelakoan nago."



ALAITZ JAUREGI
ESKULAN IRAKASLEA
ANTZUOLA

↑ 'DA', DURANGOKO AZOKA
"Euskal Herrian horrenbeste maite dugun Durangoko Azokak aurtan 50 urte bete ditu; horixe aipatuko nuke urteko onena bezala. Honek erakusten digu gure kultura gero eta biziago dagoela".

↓ AHT
"Abiadura Handiko Trena eta Y miserablea. Horrenbeste mendi apurtze, zapaltze, alferrikako diru gastatze, eta abarrek ekarri dituzten ondorio penagarriak izan dira, nire ustez, aurtengo txarrena."



ROSA URRETA
HERRITARRA
LEINTZ GATZAGA

↑ HERRIGINTZA ETA AUZOLANA
"Udal aldaketa eta herritarren inplikazioa. Eskerrak aurreko Udalarri emandakoagatik; talde berriari, lekukoa hartzeko kemenagatik. Auzolanaren bueltan antolatutako egun ederra: konponketa, bazkari, kantu..."

↓ EUSKAL PRESOK
"Berrito Labidea gunean gonbidapena: Urtezahar egunean 12:30ean brindisa euskal presoak etxeratzearen alde. Aurtan ere egin beharrekoa! Ea urte berriak guztion txintxin soinuak batzen dituen!"



ANDER BOLIBAR
GAZTEA
BERGARA

↑ HIRU DISKO
"JP Lohian & Klona Klana" (Joseba Ponck bakarka biderkatutakoa), Zuraren (Leturiaren) "Egun-kari ezkutua" eta bereziki Anariren "Zure aurrekari penalak" (batzuk egiak ez denak) lana".

↓ LORPENEN ERAISTE ERRAUSTUA
"Erosotasunak bultzatu, ingurumena alboratu, immobilismoa bandera eta parte hartzea aitzakia, 2015a komunikatzen jakin ez diren lorpenen eraiste erraustua izan da, kezko hesi garestia."



ANA REVUELTA
DENDARIA
BERGARA

↑ ATEZ ATEKOA KENTZEA
"Atez ateko bilketa sistema kentzea eta bosgarren edukiontzia ezartzeko erabakia izan da aurtengo gauzarik onena. Atez atekoa inposizioa izan zen, herritarren borondatearen aurkakoa".

↓ AGORROSINGO TASEN IGOERA
"Aurtengo txarrena Agorrosingo tasak igotzearen erabakia izan da. Bergarar asko igerilekuan bizi gara ia, eta ez da luxu bat, ia-ia behar bat da. %20ko igoerak gastu handia dakar".



XABI URIARTE
IXOTU GAZTE TALDEA
ESKORIATZA

↑ BERTSOAK GUREAN
"Eskoriatzan jokatu dira aurtan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken final-laurdenak. Bertsoak herri-ekartzea oso positiboa izan da, bertsoekiko zaletasuna zabaldu delako eta asko disfrutatu dugulako".

↓ SISTEMA ERRUDUN
"Gaur egun munduan injustizia asko daude, eta guk horiek pairatzen ditugu. Uste dut injustizia askoren erruduna sistema dela, eta, zoritxarrez, urte askotan ez da aldaketuko".



IBAI ZANGITU
AZ GAUBELAK
ARETXABALETA

↑ ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
"Erabakitze eskubidearen alde Katalunian eta Euskal Herrian ematen ari garen pausoak esanguratsuak izan dira, nire ustez. Bide horretatik jarraituta albiste hobek jasoko ditugu..."

↓ LAN BALDINTZAK ETA ERASOAK
"Gazteok ditugun lan baldintza prekarioak aipatuko nituzke; lanpostu duin bat aurkitzea gaur egun ia ezinezkoa da; eta, bestalde, emakumeen aurkako erasoak azpimarratu nahi ditut".



AGURTZANE ELKORO
UDAKO PRESIDENTEA
ARETXABALETA

↑ EMAKUMEAK ETA KIROLA
"Azkenaldian, emakumeak eta kirola indarra hartzen ari dira. Behobian, orain munduko eskubalo txapelketa dela... audientzia hartzen ari dira, eta oso positiboa dela uste dut".

↓ INDARKERIA MATXISTA
"Emakumeen aurkako indarkeriak gora egin du aurtan, eta horren kontra zerbait egin beharko dugu 2016ra begira. Uste dut salaketak bakarrik jartzea ez dela bidea, zerbait gehiago egin behar dugu..."



AITOR MADINA
MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA
OÑATI

↑ LAGUNTASUN EKINTZAK
"Oñatiko musika eskolatik jaialdi bat antolatu genuen Aspanogi elkarteari laguntzeko. Jendeak oso erantzun ona izan zuen, eta etorkizunean halako ekintzak egitea onuragarria izango litzateke".

↓ ERREFUXIATUEN EGOERA
"Medioetan errefuxiatuen egoera ikusten ari gara egunero: gosea, hildakoak... egoera penagarriak. Halakorik ez luke inork sufritu beharko, eta gure laguntasuna adierazi beharko genieke".



OIHANA DIAZ
TXOKOLATEIXIA
OÑATI

↑ JENDE MUGIMENDUAK
"Ekintza ugari ari gara egiten eskubideen alde Euskal Herrian. Jende mugimendua nabaria da, eta horrek harro sentiarazten nau. Horrela jarraitu behar dugu, gauzak hobetu daitezten".

↓ BIZIMODU HOBE BATEN BILA
"Gizartean, jende asko bidean ari da geratzen bizimodu hobe baten bila. Eta medioetan egunero-egunero entzuten ditugu horrelakoak; Siriako gerra dela, Frantziako atentatuak..."



EMILIO MANDALUNIZ
ERRETIRATUA
ELGETA

↑ LANGABEZIA BEHERA
"Langabezia azkenaldian jaitzen ari da. Hori oso garrantzitsua dela uste dut, jendea gehiago ari da kontsumitzen... Horrek poztasuna ekartzen du, nahiz eta oraindik egiteko asko dagoen..."

↓ GERRA UGARI
"Aurtengo gerra asko ikusi ditugu eta ematen du politikariek ez dutela ezer konpondu nahi, ez baitute ezer egiten. Hildako asko egon dira: gertaera batzuen berri izaten dugu; beste batzuen, aldiz, ez".

BERGARA CHEF FINAL HANDIA



GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'

EGUAZTENA, ABENDUAK 23 | 22:00

BERGARA CHEF FINALEKO PARTE-HARTZAILEAK:

- Beñat Abio eta Ariane Nafarrate
- Jose Mari Larrañaga eta Patxi Berraondo



ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

- Larrañaga gozotegia
- Ogiberri okindegia
- Konde Panaderokua okindegia
- Gorla elkarte
- Maritxu Barrena
- Jose Mari Perez
- Koldo Lasa
- Jon Andoni Olabarria 'Budy'
- Inazio Beldarrain 'Azpeitxi'

Azoka:

- Ikuz labandegia
- Arantxa bertako produktuak



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

2015 eta 2016 aztergai

Ekonomian, gizartean eta politikan, argiz eta itzalez osatutako urtea izan da, iritzigileen esanetan; kirolean eta kulturean, lorpenak izan dira albiste. Denek espero dute 2016 hobe



EKONOMIA

MIGUEL LAZPIUR | ENPRESABURUA

lazkoa baino urte motelagoa, oro har

DEBAGOIENA

Ez nuke esango 2015a urte ona izan denik; dagoeneko ez gaude **krisian**, hori gaituta dago, baina arrastoak hor daude oraindik, eta adierazleek hala diote. Oraindik langabezia tasa handiak ditugu, gure bailarako oso handiak, eta **gazteen** langabezia bereziki handia da.

Bestetik, **industriaren** jarduera oraindik ez da bere tokira bueltatu. Gure bailara industrial da bereziki, eta enpresa horiek guztiz oneratu ez izana ekonomia ondo ez dagoen seinale da. Hori gure bailarako enpresa handi batzuetan nabarmentzen da: Fagorren arazoa, **Candyren** arazoa, Arcelor Mittalen arazoa... eta beste askorenak. Oro har, nik uste dut gaur egungoa ez dela 2008-2011 urteen bitartean izan zena modukoa, baina 2014a hobe izan zen, nire iritziz.

EUSKAL HERRIA

Gauzak ez daude askoz hobeto Europan, eta horrek euskal ekonomiari eragiten dio. Garatzeko bidean dauden herrialdeak -Txina, India, Errusia...- erritmoa jaisten hasi dira, eta horrek eragin handia dauka Euskadin, nahi eta nahi ez. Krisiak **kanpora** begira jartzera derrigortu gaitu, beste herrialde batzuetara irtetera, eta gure industria eta ekonomia kanpora begira daudenez, horrek denak kalte egiten digu. Ez gaude orain dela urte batzuk bezala, orduan baino hobeto gaude, baina oraindik asko hobetu behar du denak.

Beraz, oro har, Debagoienaren antzeko joera dago Euskal Herri osoan: ez nuke esango urte ona izan denik. Joera garbia ikusten dut: iaz indarra hartu



Txinako lantegi baten. | ROBERT SCOBLE

2015

2016

GEURE ESKU Debagoiengan eta Euskadin, gure egiten dugunaren arabera izango dira gauza asko. Lanean jarraitu behar dugu; autogobernua defendatu, formazioari garrantzia eman eta gure enpresak behar bezala ipini.

BAKEA Siriakoa hobetzea eta klimaren inguruko akordio gehiago lortzea garrantzitsua litzateke.

HOBERA Urte hasiera motela izango da, baina gero, hobera egingo du.

Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!

50 **E** **elay**
1965 - 2015

ELAY Taldea - Lizarragako Hiribidea, z/g - 20577 Antzuola (Gipuzkoa) - Tel.: 943 76 61 00 - Faxa: 943 76 62 62 - www.elay.eus

 comercial **BRUNET**



Motozerra



Sasi-garbitzeko makina

ECHO

Basorako eta lorezaintzarako makineria

5
URTEKO

garantia orokorra
produktu guztietan

2
URTEKO

garantia
profesionala

Gabon
zoriontsuak
guztioi!

Telleria kalea 2, Labegarieta industrialdea - BERGARA - Tel.: 943 76 31 52 - brunett@telefonica.net - www.comercialbrunet.com

zuen berriz ekonomiak, baina aurten berriro **baretu** egin da. Lehenengo, industria moteldu da; gero, komertzioa; gero, zerbitzuak... dena dago ukituta. Langa-bezia ere handitu egin da.

Txinako erritmoa baretu egin da asko, eta euskal enpresa asko hara joanda zeuden eta beste asko, modu batera edo bestera, harako lanean, eta guri ere eragin digu moteltze hark. **Txinara** joan ziren euskal enpresa asko orain bueltan datoz, eta horrek egoera larritu egin du. Eta kalte egiten ari den beste zerbait gertatzen ari da: Txinan barne-eskaera murriztu egin da, eta hango enpresak, barrurako lan egin beharrean, kanpora irteten hasi dira, legez kanpoko prezioekin *dumping* eginez, galerekin salduz, eta hemengo enpresei kalte egiten die horrek.

MUNDUA

Munduan, orokorrean, ekonomia ez da espero zen adina hazi. **Beherakadak** denari eragin dio. Garapen bidean dauden herrialdeetan, jardura jaitsi egin da; hortaz, lana ere bai, eta, herrialde horiek lehengai asko erosten zituztenez, orain lehengaiak izugarri jaitsi dira; ikusi petrolioaren prezioarekin gertatu dena, adibidez.

Alde batetik, hori onuragarria izan daiteke, baina Euskadin, enpresa asko petrolioaren industriara begira dauzkagu -adibidez, hodiak eta balbulen ekoizleak, edo petrolioaren inguruko instalazioetara begirako produktuen ekoizleak- eta hor zegoen ordena galdu egin da.

Beste alde batetik, eta nik esango nuke hau dela momentuko ezaugarri nagusia, **ziurgabetasun** handia dago. Ekialde Hurbileko eta, bereziki, Siriako gerrenatik; eta, horrez gain, klima aldaketaren inguruko akordioak behar direlako. Parisko gailurrean halako batzuk lortu dira, eta ea horrek merkatuak pixka bat lasaitzea lortzen duen.

Beraz, Siriako arazoa konpontzeko moduan jarriko balute, eta, bestetik, akordioek iristen jarraituko balute, nik uste dut ekonomiari arnasa emango liokeela horrek guztiak.



GIZARTEA eta POLITIKA

BIXENTE ATXA | MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Une gazi-gozoekin osatutako urtea

Urtea bukatzeaz dagoela, ezin ezetz esan Goienak emandako aukera honi; hau da, 2015. urtean zehar, gizarte, ekonomian eta politikan gertatu direnak kontuan izanik, nire iritzia emateari. Errepasoarekin hasi aurretik, omenaldi bat egin nahi diet urtean zehar gure ondotik alde egin duten guztiei, hurbiletik bizi izan dut hau aurten.

Nahiz eta krisialdiaren une latz eta gorrienak pasatu direla entzuten dugun behin eta berriz, ezin dugu ahaztu, 2015a oraindik ere krisialdi horretan murgilduta agortzera goazen urtea dela. Hala ere, une gazi-gozoek izan ditugu.

DEBAGOIENA

Aurten bailara mailan izan dugun gozo horietako bat beste krisialdi baten ondoren hasitako mugimendu batetik dator. Gogoan izan urte osoan zehar On **Jose Maria Arizmendiari**ren jaiotzaren urtemuga ospatu dugula, batez ere, gure bailara honetan. Krisialdi hartatik On Jose Mariak abiatu zuen mugimendu kooperatibistaren ondorio zuzena da, gaur egun, gure bailara honek duen garapena eta bertako bizilagunok dugun bizitza kalitatea; besteak beste, hainbat herritan unibertsitate campusak izatea, estatuko langabezia tasa txikienetakoa eta hezkuntza maila altuenetakoa.

EUSKAL HERRIA

Hala ere, ezin ahaztu hau ez dela Euskadi osoan islatzen den egoera, zeren nahiz eta langabezia tasa txikiena izaten jarraitu, ez dugu jakin **epe luzeko langabeentzako** irtenbiderik aurkitzen, ez gara gai izan arazo honi konponbiderik emateko, eta, une honetan, behar handien duen taldea osatzen dute.



Arizmendiariaren omenezko panela. | M. ALTUBE

2015

2016

ESTRATEGIA BATERATUAK

Alderdi politikok dituzten proiektu gehienak partekatutako izatea. Hezkuntzaren arloan, beharrezkoak dira alderdien gainetik egon behar duten estrategia bateratuak.

EKONOMIA INDARTU

Ekonomiak indarra har dezala, epe luzeko langabezia murriztuz.

GAZTERIA Gero eta bizi itxaropen luzeagoko populazioa izanik, paso eman diezaiola gaztediari, euskal gizartea eta ekonomia bultzatuz.

MUNDUA

Eta zer esan, mundu mailan jasaten ari garen gizarte krisiaren harira, **errefuxiatuen etorrera** masiboaren aurrean, orokorrean, herrialde garatu deituak garenok hartu dugun jarrera pasiboaz. Garai ez horren urrun batean, geu izan ginen errefuxiatu eta hartu gintuzten beste herrialde batzuetan. Gai izan behar genuke erantzun azkarrago eta hobek emateko. Dena den, gai honen inguruan ere badaude positibotzat har daitezkeen ekimenak. Gizarte eta herrialde batzuetan, esaterako, Alemanian, hartu diren erabakiak ereduagarriak izan dira.

Baina, beste askok, azken honi ematen ari garen erantzuna justifikatu ahal izateko, **egoera ekonomikoa** dugu hizpide eta hori da guztion ahotan darabilgun argudioa. Egia da ez direla ekonomikoki garairik gozonenak, Debagoiengan ere Fagorren itxiera dramatikoak izan zen eta bailara guztian izan zuen eragina. **Kooperatiba** eredu ekonomikoa bezala ere zalantzan jarri zen, baina, nire ustetan, berreskuratzen ari gara garai onenetan zeukan irudia eta berriz ere ekonomia bultzatzeko eredu egokia dela ikusten da. Esandako moduan, nahiz eta guk nahi baino motelago doan, 2015. urtean ekonomia suspertzen ari dela antzematen da, eta, aldi berean, gizartea.

Ezin dugu, baina, ahaztu, ingurumenarekiko gero eta kontzientzia handiagoa duen gizarte honetan, merkatuak etika gaitu duela Volkswagenen krisiaren kasuan. 2015eko une gazietako bat izanik, uste dut ondorio positiboak izango dituela, **ingurumen politikak** egokitu baitira eta garraio jasangarriagoa lortzeko esfortzua egingo delako.

2015. urtearen errepaso honi bukaera eman aurretik, ezin aipatu gabe utzi **Kataluniaren egoera** eta hartu duen ibilbidea. Politikoki inpaktu eta tertulia gehien izan duen gertaera da, eta, zalantzarik ez, gure etorkizunean ere eragina izan dezake.

Jarrai dezagun guztiok elkarlanean, beti aurrera, 2016. urteak gaziak baino une gozo gehiago ekar ditzan. Urte berri on guztioi!



AGIRRE HORTZ KLINIKA

Nagore Agirre Mazorriaga
Odontologia Kolg. zbk. 162-A

Alaitz Agirre Mazorriaga
Odontologia Kolg. zbk. 611

Gabon jai zoriontsuak guztioi!

Ibargarai 9 - 1º B. BERGARA

Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28



KIROLA

NERE ARREGI | ATLETA

Atletismoa indarra hartzen dabil

DEBAGOIENA

Arlo pertsonalean urte oparoa izan bada ere, pertsonaletik begiratu barik, gura-guro dut azpimarratzea zenbat jendek erabaki duen zapatilak jantzi eta korrika egiten hastea. Izen asko azpimarratuko nituzke, baina **Korrikasten** ekimena azpimarratuko dut.

Zapaturo kuadrilla polita batzen da korrika egiten ikasteko aitzakiarekin, eta, horrekin batera, ikustekoa da **Debagoiengan** maratoiaren distantzian daukagun harrobia. Haziz doa, eta jende gaztea dator atzetik. Orokorrean, atletismoa dabil hazten, eta, bestela, gerturatu egubakoitzen baten **Mojategira**, ederra da atletismo pistan horrenbeste gazte entrenatzen ikustea!

EUSKAL HERRIA

Euskal Herri mailan badut arantza bat, herri honetako hainbat atletari gertatu zaigun zerbait. Azaltzen saiatuko naiz: Kros denboraldia Espainiako Txapelketarekin amaitzen da, eta horra lurralde bakoitzeko selekzioak joaten dira. Bada, Euskal Herriko Selekzioan aspaldian ez dute atleton jatorria kontuan hartzen, emaitzak baino ez dituzte aintzat hartzen, eta hainbat atleta daude kanpotarrak izan eta kanpoan bizita ere hemengo selekzioarako deitzen dituztenak, federazioko fitxa *tuneatu* ostean.

Bada, **Euskal Selekzioarekin** lehiatzeko zeuden bost txarteletatik bakarria eman gura zioten benetan selekzioa ordezkari zezakeen atleta euskaldunari. Hori ikusita, zazpi euskal atletak uko egin genion postu hori betetzeari, eta orain jakin dugu zigorra jaso dezakegula, hiru urtez egon gaitzke atletismoan federatzeko aukera barik. En fin...



2015 Asier Cuevas. | GOIENA

MUNDUA

Eta zelan diren gauzak, gure artean ditugu **Asier Cuevas** eta **Maite Maiora** moduko atletak, mundu mailan 100 kilometroko distantzian edo mendi lasterketan nabarmendu diren atletak. Baina, ez direnez futbol jokalaria, euren etxekoek baino ez dituzte ezagutzen. Eta astelehenero lanera joaten dira.

2016

LESIO BARIK Ez dut uste datorren urtean gauzak askorik aldatuko direnik. Horrenbestez, 2016ari eskatuko diogu zapatilak jantzen jarraitzeko motibazioa denondako, eta lesio barik jarraitzea. Goazen denok zapatilen zolak gastatzera!

PRENTSAN OIHARTZUNA Urte berrian komunikabideei arreta handiagoa eskatuko diegu, goi mailako atleta horiek benetan profesional izan daitezen baliabideak lortzen laguntzeko.



KULTURA

MARTIN JAUREGI | IRAKASLEA

Komunitateak eta kolektibitateak

DEBAGOIENA

Kultura hitza behin eta berrito errepikatatu ondoren, arrapaladan izen andana dator kit burura; asko, gertukoak: **Loreak, Kixi, Ruper Ordorika, Oñatiko film laburren rallya, Aitor Biain, Espaloia**... Baina oraingoan, sortzaile, artista, pelikula edota ikuskizunez baino gehiago, kulturegile hauek euren ekoizpenerako erabiltzen dituzten gunez mintzatu naiz. Garai batean, elkar-harremanean ondorioz, komunitatea modu naturalean sortzen zen. Gaur egun, berriz, etengabeko aldaketa prozesuan dagoen gizarte eredu berri honetan, komunitetik kolektibitateerako eraldaketa prozesua izan da. Komunitate eta kolektibitate dikotomia honetan, gune publikoen erabilera eta kulturaren kudeaketa motak erabakigarriak dira, bata edo bestea sustatu eta indartzeko. Hori horrela, komunitatearen berreskurapen prozesu honen "elkargune" eredu berriak sortu dira; **Eltzia** dugu gertuko adibide.

EUSKAL HERRIA

Aurtengo gune izarra hiriburu gipuzkoarrean sortu dute. Donostiak 2016rako **Tabakalera** tankerako sorkuntza azpiegitura publiko handia beharko du, edonongo kolektibitateek eskertuko dutelako aukera hau. Baina komunitatea sortzeko egarria duten kolektibo ezberdinei ere, euren guneak antolatzeko, proiektuak gorpuzteko eta amesteko aukera eskaini behar zaie; adibidez, **Kortxoenea** bezalako azpiegitura xume eta komuna ahalbideratuz.

MUNDUA

Chicagon, Buenos Airesen eta Madrilan, esaterako, komunitate kontzeptuak inda-



2015 Tabakalera. | GOIENA

rra hartu du; azken horretan **Patio Maravillas** etxe okupatua eta **Lavapiesko** antzoki herrikoia ditugu.

Debagoienak, Euskal Herriak eta munduak ez dute politikoki, geografikoki edo sentimentalki antzekotasun handirik, baina, handiagoak edo txikiagoak izanik ere, guneak besterik ez da. Hiru dimentsioak dira, hain zuzen ere, pertsonen arteko elkar harremanak garatzeko tokia.

2016

TABAKALERA Euskal Herri mailan zinematografia zentro baten eraketa proiektuak garatu eta benetako industria sortzeko.

DURANGOKO AZOKAn bizi den ilusio eta kulturarekiko dagoen erabateko atxikimendua urtean zehar mantentzeko ekimenak sustatuko dira.

MIKROKULTURAren hazia zabaldu beharko da munduan zehar herri eta kultura ezberdinen arteko proiektuen garapenerako.



ARAMAIOKO UDALA ARABA

“Aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudeteno Aramaioko udalbatzaren partez urte berri on!”



Bulego ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00
Asteazkenetan: 16:30 - 18:30

Bixente Goikoetxea plaza 1
ARAMAIO • Tel.: 943 44 50 16
www.aramaio.eus • udala@aramaio.eus





IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ALTZARIAK

*zorionak eta
urte berri on!*

ibargarai 4. 2050 bergara - Tel./Faxa: 943 763737 - imb_estudioa@hotmail.com

